

Comenius 1 proiektuaren ondoren, zer?

**Ikastetxeentzako eta aholkularientzako gida. Proiektu bat
hasteko eta garatzeko eta proiektu horri jarraipena emateko
proposamena**

AFCOM proiektua

Aurkibidea

0. Sarrera.....	5
1. AFCOM proiektua.....	7
1.1 Parte hartzen duten erakundeak	7
1.2 Helburuak	7
2. Ezaugarri orokorrak	9
2.1 Egitura	9
2.2 Gidaren helburuak eta giltzarriak.....	9
2.3 Gida erabiltzeko modua.....	9
2.4 Gidaren erabiltzaileak.....	10
3. Gida, urratsez urrats	11
3.1 Comenius proiektuaren 1. faseari hasiera eman aurretik	11
3.1.1. Proiektuaren motibazioa eta helburuak	13
3.1.2. Ikastetxeko praktikarekiko erlazioa	14
3.1.3. Barruko parte-hartzaileak.....	15
3.1.4. Proiektukideak	15
3.1.5. Aurrekontua	17
3.1.6. Ikastetxeko prestatze-ekintzak.....	17
3.1.7. Ikastetxe barruko koordinazioa	18
3.1.8. Denboraren kudeaketa	19
3.1.9. Emaitzei, ezarpenari, hedapenari eta jarraipenari buruzko ideiak.....	20
3.1.10. Prestatze-bisita edo hasierako harremanetarako mintegia.....	21
3.2. Proiektuari hasiera ematea - 2. fasea.....	22
3.2.1. Lan-plangintza	23
3.2.2. Iguripenak	25
3.2.3. Ebaluazio-plana	25
3.2.4. Informazio-plana	27

3.3. Proiektuaren prozesua eta garapena – 3. fasea.....	28
3.3.1. Parte-hartzea	29
3.3.2. Lan-plangintza/tenporalizazioa	30
3.3.3. Topaketak	31
3.3.4. Mugikortasuna	31
3.3.5. Gogoeta	32
3.4. Emaidzak eta produktuak – 4. fasea	33
3.4.1. Produktuak.....	35
3.4.2. Emaidza ez-materialak	37
3.4.3. Produktuen aurkezpena.....	39
3.5. Eragina, ondorioak eta hedapena – 5. fasea	40
3.5.1. Proiektuak ikastetxean izan duen eragina aztertzea eta identifikatzea	42
3.5.2. Proiektuaren ondoriozko hobekuntzak hautatzea eta txertatzea	44
3.5.3. Hedapena	45
3.6. Jarraipena – 6. fasea	47
3.6.1. Finkapena	48
3.6.2. Jarraipena	49
3.6.3. Eskakizunak/Baldintzak	51
1. Eranskina	53
2. Eranskina.....	57
3. Eranskina.....	63
4. Eranskina.....	85
5. Eranskina.....	89

0. Sarrera

2002. urtean, Europako bost herrialdetako beste horrenbeste erakundek Comenius proiektu bati eman zioten hasiera, “Zer gertatzen da eskolan Comenius 1 proiektuaren ondoren?” (*What happens at school after a Comenius 1 Project? AFCOM*)

Bartzelonako Baliabide Pedagogikorako Zentroek egin zuten lehen urratsa, eta proiektu horren sustatzaile bihurtu ziren. Horretarako, Comenius 1 proiektua amaitu zuten ikastetxeetan, proiektuaren ondoren garatutako jardunetan interesa zuten beste herrialde batzuetako erakundeak bilatu zituzten.

Austria, Alemania, Holanda eta Poloniako erakundeek bat egin zuten proiektuarekin, eta Europako Batzordeak onartu zuen eskaera-orria aurkeztu zuten. AFCOM taldea lan egiten hasi zen.

Elkartutako erakundeek egiaztatu zutenenez, Europako Batzordearen laguntza ekonomikorik gabe, ikastetxe gutxi zegoen elkarlanean jarraitzeko prest. Proiektuaren abiapuntua honako galdera izan zen: “Zer gertatzen da eskolan Comenius 1 proiektuaren ondoren?”. Lanean hasi bezain laster, agerikoa izan zen prozesu osoaren barruan hartu behar zirela kontuan proiektu bati jarraipena emateko jarduerak, eta ez prozesuaren amaieran soilik. Horrexegatik, hain zuzen ere, barne hartzen dira fase guztiak Gidaren ikuspegian: proiektuaren aurrekoa, hasierakoa, barrukoa eta ondorengoa. Europako proiektu bati eusten zaiola bermatzeko, komeni da curriculum-proiektuan eta ikastetxearen jardueretan Europako dimentsioa barne hartzea. Bestelako kultura eta ohiturak dituzten beste herrialde batzuekin elkarlanean jarduteak areagotu egiten ditu motibazioa eta ezagutzak, eta ikasleen artean emaitza onak izaten ditu.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu ikastetxe guztiei eta haien ekarpen baliagarriekin lagundu diguten irakasle guztiei, ekarpen horiek guztiak funtsezkoak izan baitira Gida hau lantzeko garaian.

1. AFCOM proiektua

Aurkezten dizuegun gida Comenius 2.1 proiektuaren emaitza da, hots, AFCOM: What happens at school after a Comenius 1? proiektuaren emaitza. 2002. urtetik 2005. urtera bitartean egin dugu lan proiektu honetan.

1.1 Parte hartzen duten erakundeak

Europako bost herrialdeetako beste horrenbeste erakunde hartu dute parte proiektu honetan

Koordinazioa:

- Centre de Recursos Pedagògics de Gràcia. Bartzelona (Espainia)

Proiektukideak:

- Wojewódzki Ośrodek Metodyczny. Opole (Polonia)
- Institut für schulische Fortbildung und schulpyschologische Beratung. Boppard (Alemania)
- Pädagogische Akademie der Diözese Linz. Linz (Austria)
- Marant Educatieve diensten. Arnhem (Holanda)

Proiektuaren eta proiektukideen informazioa gehitu nahi izanez gero, AFCOMen web-orrian aurkitu ahal izango duzue informazio gehiago: <http://www.xtec.net/afcom/>

1.2. Proiektuaren helburuak

Proiektu honen bitartez jardun-ildoak eskaini nahi zaizkie ikastetxeei. Izan ere, jardun ildo horien bitartez, Comenius 1 proiektuan lortutako eraginak, helburuak eta arrakastak ikastetxearen ohiko jardunaren parte izan daitezten bermatu nahi da. Gainera, eragin, helburu eta arrakasta horien jarraipena egitea eta horiek zabaltzea lortu nahi da.

Honako helburuak zehaztu ziren:

- Comenius 1 proiektuan parte hartu duten ikastetxeetan Europako dimentsioa barne hartzeko alderdirik garrantzitsuenak identifikatzea.
- Ikastetxeetan Europako dimentsioa jorratzen jarraitzea eragozten edo oztopatzen duten egoerak, baldintzatzaileak eta eguneroko arazoak ezagutzea.

- Proiektua amaitutakoan, Europako dimentsioa areagotuko duten antolamendu-irizpideak eta jardun-ildoak eskaintzea irakasleei.
- Europako hezkuntza-proiektu orokorra ezartzeko prozesuan, ikastetxeei aholkuak ematea.
- Ikastetxeetako esperientziak kudeatzeko, informatzeko eta hedatzeko prozesuetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera optimizatzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea, Europako hizkuntzen ikaskuntza hobetzearen.



Continuidad – *Jarraipena*

Antes de empezar – *Hasi aurretik*

Inicio – *Hasi era*

Proceso y desarrollo – *Prozesua eta garapena*

Resultados – *Emaitzak*

Impacto, repercusiones y divulgación – *Eragina, ondorioak eta hedapena*

La guía fase a fase – *Gida, urratsez urrats*

2 Gidaren ezaugarri orokorrak

2.1 Egitura

Gida sei zatitan dago banatuta, proiektu baten zati bakoitzeko bat:

- Comenius proiektu bati hasiera eman aurretik
- Proiektuaren hasiera
- Proiektuaren prozesua eta garapena
- Proiektuaren emaitzak
- Eragina, ondorioak eta hedapena
- Jarraipena

Fase horien ordena kronologikoari jarraituz lortuko da, segur aski, Comenius 1 proiektua arrakastatsua izatea. Urrats horiek eginez, ikastetxeak oso ziur egon daitezke Comenius 1 proiektuaren iraupenaz harantzagoko harreman sendoak ezarriko dituztela hiru urteren buruan.

2.2 Gidaren helburuak eta giltzarriak

Ikastetxeek Europa mailako harremanei jarraipena eman diezaieten eta harreman horiek anitz ditzaten sustatu nahi du Gidak. Horretarako, Europa osoan zehar komunikazio eta elkarlana areagotzea bultzatuko du.

- Hezkuntza-proiektuetan Europako dimentsioa txertatzea edo dimentsio horren ezarpen maila areagotzea izango da hezkuntza eta politika arloko helburua.
- Irakasleek eta ikasleek beste hezkuntza-sistema batzuk ezagutzeko aukera izango dute, baita haien sistema beste ikuspuntu batetik aintzat hartzeko aukera ere.
- Irakasleek eta ikasleek, halaber, Europa osoko kultura, sinesmen, balio, ohitura eta jarrera arloko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko aukera izango dute.
- Comenius 1 proiektuaren produktuak, era berean, baliagarriak izan daitezke irakatsi eta ikasteko material gisa.

2.3 Gida erabiltzeko modua

Irakurleak gida hau erabiltzeko askotariko aukerak ditu (informazio xehatua 3. kapituluan).

Hainbat arlotako ideia ugari biltzen du, hala nola:

- Jarduteko moduei buruzko iradokizunak.
- Kronologikoki egin beharreko ekintzei buruzko iradokizunak.
- Aurrekontu-gaietan jarduteko moduei buruzko iradokizunak.
- Kontuan izan beharreko alderdiei buruzko iradokizunak.
- Proiektukideen arteko harreman eraginkorra lortzeko moduari buruzko iradokizunak.

Ikastetxeetarako iradokizun horiek, beraz, zehatz-mehatz jarrai daitezkeen edo orientabide gisa baino hartu behar ez diren jarraibideak izango dira.

Gida, halaber, lagungarria izan daiteke irakaskuntzarako. Izatez, ikastetxean interkulturalitateari buruzko lana erraz dezaketen Europako gaiei buruzko ideia ugari eskain ditzake.

Azkenik, proiektuaren hainbat unetan praktika egokiak egin dituzten ikastetxeen adibideak eskaintzen ditu.

2.4 Gidaren erabiltzaileak

Gida askotariko erabiltzaileei zuzentzen zaie.

Lehenik, Comenius 1 proiektua amaitu duten eta proiektukideekin lan egiten jarraitu nahi duten edota beste ikastetxe batzuk proiektuan sartu nahi dituzten ikastetxeetarako pentsatuta dago.

Bigarren, Comenius 1 proiektua garatzen ari diren ikastetxeetarako pentsatuta dago. Ikastetxe horiei onuragarria izan dakieke dokumentu honetan aipatzen diren ikastetxeen esperientzia.

Hirugarren, Comenius 1 proiektuan murgildu nahi duten ikastetxeek informazio baliagarri ugari eskuratu ahal izango dute, prozesuaren faseak eraginkortasunez diseinatzeko.

Laugarren, eskoletan Europako dimentsioa areagotzeko ideiak bilatzen dituen irakasleak oso informazio erabilgarria aurkituko du gida honetan.

Azkenik, irakasleen trebakuntza-zentroek informazio eta ideia baliagarriak atera ditzakete Gida honetatik, ondoren oso erabilgarriak izango baitzaizkie ikastetxeei aholkuak emateko edota arlo horretako prestakuntza-ikastaroak antolatzeko.

Usuarios de la guía – *Gidaren erabiltzaileak*

Los centros antes, durante y después de un Com. 1 - *Ikastetxeak Com. 1 proiektuaren aurretik, barruan eta ondoren*

Estructura de la guía – *Gidaren egitura*

Antes de empezar – *Hasi aurretik*

Al principio – *Hasieran*

El proceso – *Prozesua*

Los resultados – *Emaitzak*

Divulgación – *Hedapena*

Continuidad – *Jarraipena*

Objetivos y aspectos clave – *Helburuak eta funtsezko alderdiak*

Ampliar la comunicación europea – *Europako komunikazioa areagotzea*

Utilizar los productos del Com. 1 como materiales de enseñanza-aprendizaje – *Com. 1 proiektuaren produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa erabiltzea*

Como utilizar la guía – *Gida erabiltzeko modua*

Como fuente de información – *Informazio-iturri gisa*

Como pauta a seguir – *Jarraibide gisa*

Como modelo – *Eredu gisa*

AFCOM para los centros – *Ikastetxeetarako AFCOM*

Antes del Com. 1 – *Com. 1 proiektuaren aurretik*

Durante el Com. 1 – *Com. 1 proiektuaren barruan*

Después del Com. 1 – *Com. 1 proiektuaren ondoren*



3 Gida: urratsez urrats

3. Gida, urratsez urrats

3.1 Comenius proiektuaren 1. faseari hasiera eman aurretik

Sarrera

Ikastetxean beste jarduera bati hasiera eman aurretik, oso garrantzitsua da jarduera hori prestatzea. Eta prestatzeak plangintza egitea esan nahi du; aukerei buruz, baldintzei buruz, izan daitezkeen emaitzei buruz, ager daitezkeen zailtasunei buruz, laguntzari buruz eta abar mintzatzea esan nahi du. Oso garrantzitsua da fase hori proiektuaz bereizita aintzat hartzea. Izatez, proiektuaren lehen fasetzat jo daiteke.

Dena den, ikastetxe askorentzat ez da faserik interesgarriena, administrazio eta aurrekontu arloko zereginak eskatzen baititu.

Nolanahi ere, oso garrantzitsua da proiektuari ekin aurretik egiten dena. Proiektuaren arrakasta eta emaitzen balioa prestatze fasearen arabera da, hein handi batean. Prestakuntza eskasak ez du, oro har, emaitza eta produktu onik sortuko. Haatik, horrek ez du esan nahi prestakuntza egoki batek emaitza onak guztiz bermatzen dituela. Gainerako faseak garrantzi handikoak dira, jakina.

Helburuak

Comenius proiektu bati hasiera emateko alderdi guztiak prestatzea da fase honen helburua.

Fase honetan oso garrantzitsua da honako alderdiez mintzatzea:

- motibazioaz
- ikastetxearentzako garrantziaz
- finantziarioaz
- ikastetxeko parte-hartzaileez
- proiektukideez
- koordinazioaz
- erantzukizunez.

Zeregin eta jarduera nagusiak

- Proiektuaren helburu nagusiak eztabaidatzea eta definitzea.
- Proiektuko gaiak eztabaidatzea eta hautatzea.
- Ikasleen eta irakasleen gaitasunei eta ahalmenei buruzko eztabaida eta parte-hartzea sustatzea eta alderdi horien gaineko erabakiak hartzea.

- Aurrekontuari buruz eztabaidatzea.
- Baldintzei buruz eztabaidatzea.
- Proiektukide izan daitezkeenekin harremanetan jartzea.
- Proiektukide izan daitezkeenak hautatzeko irizpideak definitzea.
- Proiektukideak hautatzea.
- Zereginak banatzea.
- Erantzukizunei buruzko erabakiak hartzea.
- Komunikazioari eta hizkuntzen erabilerari buruz eztabaidatzea.
- Izan daitezkeen emaitzei buruz eztabaidatzea.
- Ezartzeko eta/edo hedatzeko plana egitea, eztabaidatzea eta definitzea.
- Barruko parte-hartzaileei buruz eztabaidatzea.

Emaitzak

Irizpideak, planak, prozedurak, akordioak, baldintzak eta abar dira fase honetako emaitzak. Askotan, fase honetako emaitzak oso zehatzak ezin dutela izan uste den arren, emaitza zehatzak lortzen badira, zehatza izango da proiektuaren bilakaera eta errazagoa izango da hasiera egoki ematea.

Proiektu batzuen porrota ez datza proiektuan egindako lanean, abiapuntuko baldintzak behar bezain onak ez izatean eta/edo akordio eskasetan baizik. Hori dela eta, oso garrantzitsua da fase hau.

Parte hartzen duten pertsonak

Proiektuan parte har dezaketen ikastetxeko pertsonak neurri batean edo bestean murgiltzen dira fase honetan:

- Irakasleak (klaustroa)
- Ikasleak
- Familiak
- Zuzendaritza Taldea

Batzuetan irakasle ez diren langileek ere hartzen dute parte. Prestatze fasea pertsona askoren parte-hartzearekin oso bideragarria ez denez gero, funtsezkoa da fase honetako zeregin nagusiez arduratuko den koordinazio-talde bat edo lan-talde txiki bat eratzea. Talde horrek zuzendaritza-taldeko eta klaustroko ordezkariak eduki beharko lituzke.

Fase honen alderdiak

Prestatze fase honetan funtsezko erabakiak hartu behar dira. Aurrerago, fase honetan ikastetxerako lagungarriak izan daitezkeen zenbait aholku, iradokizun eta norabide aurkituko dituzue. Aholkuak eta iradokizunak praktika egokien inbentario batetik eta

praktika desegokien azterketa batetik ateratako zenbait gairekin lotzen dira. Prestatze fasean erabilgarriak izan daitezkeen hamar alderdi hautatu ditugu:

1. Proiektuaren motibazioa eta helburuak.
2. Ikastetxeko praktikarekiko erlazioa.
3. Barruko parte-hartzaileak.
4. Proiektukideak.
5. Aurrekontua.
6. Ikastetxeko prestatze-ekintzak.
7. Ikastetxeko koordinazioa.
8. Denboraren kudeaketa.
9. Emaitezi, ezarpenari, hedapenari eta jarraipenari buruzko ideiak.
10. Prestatze-bisita eta/edo hasierako harremanetarako mintegia.

Aurrerago deskribatuko dira hamar alderdi horiek.

Alderdi bakoitzak egitura bera du:

- Alderdiaren deskribapena.
- Gauza daitezkeen ekintza zehatzak.
- Berraztertzea errazteko kontrol-zerrenda.

3.1.1 Proiektuaren motibazioa eta helburuak.

Comenius proiektu baten alderdi garrantzitsuenetako bat helburu egoki eta zehatzekin lan egitea da. Helburu zehatzik ez badago, ez dago emaitzak ebaluatzerik, ezta horien jarraipena egiterik ere. Comenius proiektu batean parte hartzeko askotariko motibazioa izan daiteke.

- Proiektuko gaiaren gaineko interesa.
- Nazioarteko dimentsioaren gaineko interesa –dimentsio hori aurretik ikastetxean bete ez denean, helburu egokia eta zehatza izan daiteke hori–.
- Atzerriko hizkuntzaren erabilera –eta, oro har, hizkuntzen erabilera– hobetzeko interesa.
- Proiektu baten barruan taldean lan egiteko interesa.

Motibazio horien artean ez dago berriazko hierarkiarik, baina gaiarekiko interesa da garrantzitsuenetako bat. Funtsezkoa da klaustroak eta/edo talde sustatzaileak sakon-sakon eztabaidatzea helburu horiek. Berriazko helbururik ezean, ezinbestekoa izango da ikastetxeak helbururen bat definitzea.

Ekintza zehatzak

- Ikastetxeko proiektuaren helburuak eztabaidatzea.

- Proiektuaren helburuak proiektukideen artean eztabaidatzea.
- Ikastetxeko proiektuaren helburuak definitzea.
- Proiektuaren helburuak proiektukideekin definitzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuaren helburuei buruz hitz egin dugu			
Gaiarekiko interesa dugu			
Ikastetxeko nazioarteko dimentsioa hobetu nahi dugu			
Ikastetxean hizkuntzen irakaskuntza hobetu nahi dugu eta hizkuntzak erabil daitezzen sustatu			
Proiektu batean lan egitearen esperientziaz baliatu nahi dugu			
Proiektuaren helburuak definitu ditugu			

3.1.2 Ikastetxeko praktikarekiko erlazioa.

Proiektua probetxugarriagoa izango bada, garrantzitsua da ikastetxeko metodologiarekin eta curriculumarekin lotzen diren edukiak eta metodoak hautatzea, edo haren praktikan barne har daitezkeen edukiak eta metodoak hautatzea.

Ekintza zehatzak

- Ikastetxeko metodologia aztertzea eta proiektuan erabil daitezkeen praktika onak bilatzea.
- Ikastetxeko metodologia aztertzea eta proiektuari esker zer alderdi alda edo hobe daitekeen hautematea.
- Curriculuma berraztertzea eta gaiak bilatzea.
- Curriculuma aztertzea eta zer puntutan zabal eta hobe daitekeen begiratzea.
- Ikastetxean hizkuntzak nola irakasten diren aztertzea eta, proiektuari esker, atzerriko zein hizkuntza hobe daitekeen erabakitzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Curriculumarekiko erlazioari buruz hitz egin dugu			
Ikastetxeko metodologiarekiko erlazioari buruz hitz egin dugu			
Ikastetxeko curriculuma hobetu nahi dugu			
Ikastetxeko metodologia hobetu nahi dugu			
Hizkuntzaren irakaskuntza hobetu nahi dugu ikastetxean			
Irakaskuntza praktikatu nahi dugu, baita atzerriko hizkuntzen erabilera ere			

3.1.3. Barruko parte-hartzaileak

Comenius proiektuak ikastetxeko proiektuak dira. Haatik, hau ez da beti posible. Kasu horretan, ikastetxeko zer pertsonen hartuko duten parte erabaki beharko du zuzendaritza-taldeak.

Erabaki zuzena hartzeko, oso garrantzitsua da hainbat irizpide edo alderdi definitzea:

- Proiektua ikastetxe osorako da baliagarria ala zati baterako soilik?
- Praktikan, posible al da ikastetxe osoak parte hartzea ala zati batek soilik egin behar du?
- Zati batek soilik hartu behar badu parte, norentzat da komenigarriagoa eta baliagarriagoa proiektua? Zer ikasgelarentzat eta irakaslerentzat?

Ekintza zehatzak

- Ikastetxeak lor dezakeen onura definitzea.
- Ikastetxe osoak parte har dezakeen edo zati batek soilik egin behar duen definitzea.
- Hautatzeko irizpideak definitzea.
- Ikasgelak eta irakasleak definitzea (baita zuzendaritza-taldea eta irakasle ez diren langileak ere).
- Ikasleei, irakasleei eta lan-taldeari informatzea.
- Proiektukideei informatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxeak lor dezakeen onura definitu dugu			
Ikastetxe guztiarentzat edo zati batentzat soilik baliagarria den erabaki dugu			
Nork hartuko duen parte definitu dugu			
Hautatzeko irizpideak definitu ditugu			
Ikastetxeko parte-hartzaileei informatu diegu			
Proiektukideei informatu diegu			

3.1.4 Proiektukideak

Proiektu bati ekin aurretik, arreta handiz hautatu behar dira proiektukide egokiak.

Lehenik, garrantzitsua da proiektukide kopuru egokia lortzea. Gutxienez araudiak eskatzen dituenak. Dena den, komeni da eskatzen direnak baino bat edo bi gehiago hartzea –baten batek uko egiten badu ere, eskatzen den kopurua izan dadin–. Hiru proiektukide gutxi dira, baina zortzi edo bederatzirek gehiegi izan daitezke, komunikazioa eta elkarlana oztopatuko litzateke-eta.

Bigarren, garrantzitsua da proiektukideen motibazioak ezagutzea. Behar-beharrezkoa da jakitea zergatik nahi duten proiektuan murgildu, haiengandik elkarlan egokia espero daitekeen, eta haien ahulguneak eta indarguneak zein diren. Era berean, proiektuetan eta, zehazki, nazioarteko proiektuetan parte hartu duten jakin beharko da. Jakina, ez

da beharrezkoa izango proiektukide guztiek alor horretako esperientzia izatea, baina komeni da bakarren batek halako esperientzia izatea.

Nola jarri zarete harremanetan proiektukide horiekin, ustekabeen ala Hezkuntza Sailaren laguntzarekin (Nazioarteko Hezkuntza eta Zientzia Elkarlanerako Bulegoaren laguntzarekin)? Defini itzazue proiektukideak hautatzeko irizpide batzuk, eta saia zaitezte hautatuek eskakizun horiek bete ditzaten.

Ekintza zehatzak

- Proiektukideak hautatzeko irizpideak finkatzea.
- Proiektukideen ahulguneen eta indarguneen ideia lortzen saiatzea, baita nola lagun dezaketen finkatzen ere.
- Proiektuan sartzeko motibazioaz eta helburuez galdetzea.
- Hezkuntza Sailari (Nazioarteko Hezkuntza eta Zientzia Elkarlanerako Bulegoari) proiektukideak hautatzeko laguntza eskatzea.
- Proiektukide gehiegi ez hautatzea.
- Proiektukideek baldintzak betetzen dituzten egiaztatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektukideen kopurua eztabaidatu eta adostu dugu			
Badakigu zein diren haien ahulguneak eta indarguneak			
Badakigu zein den proiektukideen motibazioa			
Proiektukideak hautatzeko irizpideak definitu ditugu			
Proiektukideen taldean esperientzia duen baten bat dago			
Proiektukide guztiek betetzen dituzte baldintzak			
Proiektukideak hautatzeko kanpoko laguntza eskatu dugu			

3.1.5 Aurrekontua.

Comenius proiektuek Europako Erkidegoaren dirulaguntza duten arren, komeni da proiektua gauzatzeko aurrekontu osagarria izatea. Hori dela eta, finantziario-politika ezarri beharko da.

Garrantzi handikoa da zer sarrera, gastu eta funts dauden jakitea. Era berean, oso interesgarria da beste iturri batzuetatik diru gehigarria lortzen saiatzea. Aurrekontuaren gabeziagatik jarduerak murriztu beharra saihesteko modu bakarra da.

Ekintza zehatzak

- Bi edo hiru urtetarako aurrekontuan pentsatzea.

- Ikastetxearen aurrekontuko diruan eta Europako Batzordearen diru-laguntzan oinarritutako finantziazio-plana eratzea (gutxi gorabeherako aurrekontua).
- Ahal izanez gero, hainbat erakunderi diru gehigarria eskatzea.
- Diru-iturri, diru-emaile eta babesle izan daitezkeen inbentarioa sortzea.
- Gastuetarako lehentasunak definitzea.
- Jarduerak eta aurrekontuak bat egin dezaten ahalegintzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Aurrekontua kudeatzeko politikaz mintzatu gara eta politika hori finkatu dugu			
Proiektuak irauten dituen urteetarako aurrekontua ezarri dugu			
Hainbat iturritatik dirua lortzen saiatu gara			
Proiektuko jarduerak eta aurrekontua bat etor zitezen ahalegindu gara			
Gastuetarako lehentasunak definitu ditugu			

3.1.6 Ikastetxeko prestatze-ekintzak

Prestakuntza ona da arrakastaren bermea, askotan bederen. Printzipio hori beti betetzen ez den arren, ikastetxeko parte-hartzaileak ondo prestatuta egoteak, eta proiektuak irauten duen bitartean zer egin behar duten jakiteak, asko laguntzen du. Horrenbestez, oso lagungarria izango da ikastetxeak proiektuaren bitartez lortu nahi dituen helburuen eta egin beharreko jardueren zerrenda egitea eta jarduera horiek nork egingo dituen deskribatzea.

Ekintza zehatzak

- Ikasleek egin beharreko ekintzen eta lanen zerrenda egitea.
- Klaustroak egin beharreko ekintzen eta lanen zerrenda egitea.
- Zuzendaritza-taldeak egin beharreko ekintzen eta lanen zerrenda egitea.
- Irakasle ez diren langileek egin beharreko ekintzen eta lanen zerrenda egitea.
- Familiek egin beharreko ekintzen eta lanen zerrenda egitea.
- Lanak eta ekintzak parte-hartzaileen artean banatzea.
- Parte-hartzaile guztiekin norberaren lanari buruz hitz egitea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleek egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Klaustroak egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Zuzendaritza-taldeak egin beharreko lanari buruz			

hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Irakasle ez diren langileek egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Familiek egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			

3.1.7 Ikastetxe barruko koordinazioa

Hurrengo urratsean, ikastetxeko bertako koordinazioa ezarri beharko da. Izan ere, proiektuan murgilduta daudenak norberaren zereginen eta jardueren arduradun dira; alabaina, funtsezkoa da ikastetxe barruko koordinazioa. Koordinazio hori hainbat modutan antola daiteke.

Ikastetxe handien kasuan, ikasle, irakasle eta familia askok hartzen dute parte proiektuan; hortaz, oso egokia izan daiteke talde guztietako ordezkariak eta zuzendaritza-taldeko beste ordezkariaren batek osatutako koordinazio-taldea sortzea. Ikastetxe txikiagoetan, aldiz, nahikoa izango da proiektuaz arduratuko den talde txiki bat osatzea. Koordinatzaile bakarra ere izenda daiteke.

Edonola ere, ikastetxeak berak definitu beharko ditu koordinazio-taldearen edo koordinatzailearen zereginak eta jarduerak.

Halaber, prozesuak eta multzoak berraztertzea ere erabilgarria izango da. Hori egiteko, ikastetxeak koordinazio-kontseilua era dezake. Hori ikastetxe eta proiektu handietan izango da baliagarria.

Ekintza zehatzak

- Koordinazioko zereginak eta jarduerak definitzea.
- Proiektuaren koordinatzailea izendatzea ikastetxean.
- Proiektuaren koordinazio-taldea izendatzea ikastetxean.
- Koordinatzailearen edo koordinazio-taldearen eskumenak definitzea.
- Kontseilu bat izendatzea ikastetxean.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxeko koordinazio-zereginen hitz egin dugu eta definitu ditugu			
Bi aukerari buruz hitz egin dugu: koordinazio-taldea bat edo koordinatzaile bat			
Koordinatzailea edo koordinazio-taldea izendatzea erabaki dugu			
Koordinazio-taldearen edo koordinatzailearen zereginen hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			
Kontseiluaren zereginen hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			

3.1.8 Denboraren kudeaketa

Proiektuak arrakasta izango badu, egoki planifikatu beharko da denbora. Planifikatzen ez bada, ikastetxearen lehentasunek proiektua baztertzea ekar dezakete, eta, hortaz, planak eta jarduerak une desegokian edo ordena desegokian egin daitezke.

Ekintza zehatzak

- Ikasleek proiektuari eskainiko dioten denbora definitzea.
- Irakasle parte-hartzaileek proiektuari eskainiko dioten denbora definitzea.
- Zuzendaritza-taldeak proiektuari eskainiko dion denbora definitzea.
- Irakasle ez diren langileek, parte hartzen badute, proiektuari eskainiko dioten denbora definitzea.
- Ikastetxeko jardueren eta zereginen lan-plangintzari buruz hitz egitea eta lan-plangintza definitzea.
- Proiektuaren osotasunaren lan-plangintzari buruz hitz egitea eta lan-plangintza definitzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleek eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Irakasleek eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Zuzendaritza-taldeak eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Irakasle ez diren langileek eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Ikastetxeari dagokion lan-plangintzari buruz hitz egin dugu eta lan-plangintza definitu dugu			
Proiektukideei dagokien lan-plangintzari buruz hitz egin dugu eta lan-plangintza definitu dugu			
Lan-plangintza proiektukideekin partekatu dugu			

3.1.9 Emaitei, ezarpenari, hedapenari eta jarraipenari buruzko ideiak

Hasierako fasean bagara ere, komeni da proiektuaren emaitzei eta produktuei buruzko ideiak finkatzea, baita proiektuari atera diezaiotkegun etekinari buruzko ideiak ere. Jakina, prozesuak aurrera egin ahala, aurretiazko ideia horiek alda daitezke, baina ideiarik finkatu gabe zaila izango da hasiera egokia ematea.

Emaitei eta produktuei buruz mintzatzean, garrantzi handikoak dira alderdi hauek:

- Produktu materialak eta ez-materialak daude; emaitza ez-materialak oso baliagarriak dira ikastetxeetarako eta hezkuntzarako.
- Emaitzak eta produktuak irakasleei, ikasleei eta ikastetxeari –unitate gisa– zuzen dakizkioke; oso garrantzitsua da produktuak zein talderi zuzentzen zaizkion jakitea.

- Produktuak hainbat arlotakoak izan daitezke; arlo jakin batekoak izan daitezke (curriculum); metodologikoak izan daitezke (ikasteko eta irakasteko moduak); atzerriko hizkuntzen arlokoak izan daitezke (hizkuntzen irakaskuntza, ikaskuntza eta praktika); eta nazioarteko dimentsioa hobetzekoak izan daitezke.
- Garrantzitsua da lortu nahi diren emaitzen izaerari buruz pentsatzea: jakintzak, trebetasunak edo jarrerak.

Ikastetxeak proiektuarekin zer emaitza eta produktu lortu nahi duen badakienean, proiektua ikastetxean ezartzeari buruz eta ikastetxeaz kanpo hedatzeari buruz pentsatu beharko da. Ikastetxean hainbat modutan ezar daiteke: mintegi, bilera, eztabaida-talde eta abarren bidez. Ikastetxeaz kanpo hedatzeko, berriz, topaketak antola daitezke, webgune bat zabal daiteke, CD-Rom bat egin daiteke, artikulua artigitara daitezke aldizkarietan,...

Ekintza zehatzak

- Proiektuaren ondorioz lor daitezkeen eta lortu nahi diren emaitzei buruz hitz egitea.
- Emaitzen izaerari buruz hitz egitea.
- Emaitzak ezartzeko moduei buruz hitz egitea.
- Emaitzak hedatzeko moduei buruz hitz egitea.
- Aurreko puntuei buruzko hainbat alderdi definitzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Sor daitezkeen produktuei eta emaitza materialei eta ez-materialei buruz hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			
Izan daitezkeen emaitzei buruz hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu: jakintzak, trebetasunak eta jarrerak.			
Produktuak zein talderi zuzentzen zaizkion aztertu dugu eta definitu ditugu: irakasleak, ikasleak, irakasle ez diren langileak, zuzendaritza-taldea			
Produktuak eta emaitzak zein esparrutakoak diren aztertu dugu eta definitu ditugu: curriculum, metodologia, hizkuntzen praktika, nazioarteko dimentsioa			
Ezarpena egiteko moduei buruz eztabaidatu dugu eta modu horiek definitu ditugu			
Hedapena egiteko moduei buruz eztabaidatu dugu eta modu horiek definitu ditugu			
Emaitzak osatzeari buruz hitz egin dugu eta osatzea definitu dugu			
Hedapenari buruz hitz egin dugu eta hedapena definitu dugu			
Aurretiatzko ezarpen-plan bati buruz hitz egin dugu eta plan hori definitu dugu			
Hedapen-planari buruz hitz egin dugu eta plan hori definitu dugu			
Aurretiatzko planak proiektukideekin partekatu ditugu			

3.1.10 Prestatze-bisita edo hasierako harremanetarako mintegia

Prestatze-bisita izan ohi da eskaera ofizialaren aurreko azken ekintza. Bilera horretan proiektuaren helburuak definitzen dira, proiektukideek azken datuak trukatzeko dituzte, lan-plangintza lantzen da, proiektuaren prozesua ezartzen da, aurrekontua definitzen da, eta eskaera-orri ofiziala betetzen da. Lehen bilera hori beste arrazoi batzuegatik ere funtsezkoa da. Proiektukideek esperientziak eta jakintzak truka ditzakete eta, horrela, elkarlan egokia ezar dezakete. Mota horretako bilera batek, beraz, honako emaitza izan beharko luke: lan-plangintza ofiziala idaztea, aurrekontua lantzea, eta Agentzia Nazionalari eta Europako Batzordeari igorriko zaion eskaera formalizatzea. Eskaera onartutakoan eta finantza-akordioa lortu ostean, hasiera eman daskioke proiektuari.

Ekintza zehatzak

- Prestatze-bilerarako eztabaidagai nagusien zerrenda idaztea.
- Proiektukideak gonbidatzea.
- Topaketa antolatzea.
- Eztabaidagai guztiak eztabaidatzea (ikus 1etik 9ra bitarteko alderdiak).
- Lan-plangintza ofiziala lantzea eta eskaera-orria betetzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Prestatze-bilera antolatu dugu			
Topaketa horretan eztabaidatzeko gaien zerrenda idatzi dugu			
Topaketa egin dugu			
Proiektuaren helburuak eta edukia adostu dugu			
Lan-plangintza adostu dugu			
Aurrekontu-gaiez hitz egin dugu			
Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna adostu dugu			
Lehen jardunak eta proiektua hasi ondorengo lehen topaketa planifikatu dugu			
Eskaera-orri ofiziala eskatzea erabaki dugu			

3.2 Proiektuari hasiera ematea - 2. fasea

Sarrera

Orokorrean, lehen topaketa irailean edo urrian egin ohi da, prestatze-bisitan ezarritakoaren arabera. Proiektukideek lan-plangintza ezartzen dute, eta faseetako bakoitzeko ardurak finkatzen dituzte. Topaketa horiek funtsezkoak dira, askotariko hezkuntza-sistemak eta askotariko kultura-oinarriak baitira abiapuntu. Comenius proiektuetan lanean hasi baino lehen, alderdi hori hartu beharko da kontuan. Haatik, ikastetxeen finantza-egoera ere hartu beharko da aintzat, baita bakoitzaren aukera

teknikoak ere. Gai horiek aurrez aurre aztertu beharko dira topaketetan (errazagoak diren fax, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanez harantzago).

Helburuak

Fase honen helburua lan-plangintza xehatua zehaztea eta adostea izango da. Horrenbestez, gai hauei buruz hitz egin beharko da eta horien inguruan hartu beharko dira erabakiak:

- Hasierako topaketari buruz.
- Ikastetxeko lan-plangintzari buruz.
- Ebaluazio-planari buruz.
- Informazio-sistemei buruz.
- Lanerako hizkuntzari buruz.
- Emaizten eta produktuen arloko proiektuko iguripenei buruz.

Zeregin eta jarduera nagusiak

Fase horretan honako zeregin eta jarduera nagusiak gauzatu beharko dira:

- Hasierako topaketa antolatu beharko da (programa, gonbidapenak...).
- Helburuak zehaztu beharko dira.
- Zereginak eta horien banaketa zehaztu beharko da.
- Emaizak zehaztu beharko dira.
- Ebaluazio-plana diseinatu beharko da.
- Informazio-sistemak finkatu beharko dira.

Emaizak

Honakoak dira fase horren emaitzak: lan-plangintza, helburuen adostasuna, informazio-sistemak, aurrekontu-akordioak, proiektukideen topaketak, ebaluazio-plana (ebaluazio-tresnak barne), produktuen plan idatzia, eta aurkezteko modua eta denbora.

Parte hartzen duten pertsonak

Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako koordinatzaileek eta dagozkien ekipoek (ikasleek eta irakasleek) eta zuzendaritza-taldeek gauzatzen dituzte fase horretako zereginak.

Fase honen alderdiak

Aurrerago, fase honetan lagungarriak izan daitezkeen zenbait aholku, iradokizun eta norabide aurkituko dituzue:

1. Lan-plangintza.
2. Iguripenak.
3. Ebaluazio-plana.
4. Informazio-plana.

3.2.1 Lan-plangintza.

Lan-plangintza errealista egiteak emaitzak lortzen lagunduko du, inolako zalantzarik gabe. Kontuan izan behar da beharrezko aldaketak onartzeko behar bezain malgua izan beharko duela plangintza egoki batek. Prestatze-aldian helburuak, zereginak eta egutegia definitu dira, oro har. Orain, eskaera-orrian definitutako urratsak xehetasunez planifikatzeko garaia da.

Lehen bilera egin aurretik, ikastetxe bakoitzak lan-plangintzaz hitz egin dezan gomendatzen da. Zeregin horren emaitza oso garrantzitsua izango da lehen topaketan.

Lortu beharreko helburuek zehatzak, neurrizkoak eta errealistak izan beharko dute. Ikastetxe askoren esperientziak erakutsi digu ez dela helburu ugari finkatu behar, ezta asmo handiegiko helbururik finkatu behar ere.

Planifikatutako helburuak lortzeko egin beharreko jarduera zehatzek errealistak izan beharko dute, eta denbora, baliabideak eta bitartekoak hartu beharko dituzte aintzat. Era berean, ez da ahaztu behar proiektuko zereginak ikastetxeko lan-plangintzan barne hartu beharko direla, ahal den guztietan bederen.

Gainera, zereginak nola banatu behar diren ere erabaki beharko da, eta, horretarako, proiektukideen interesak, gaitasunak eta aukerak hartu beharko dira kontuan.

Oso garrantzitsua da lan-plangintza jarraitzea eta betetzea. Hasieran, herrialde bakoitzeko hiru hilekoaren hasierari eta amaierari buruzko informazioa, oportu buruzkoa eta abar partekatu beharko da.

Horrek plangintza errealista lantzeko aukera emango digu.

Ekintza zehatzak

- Ikastetxean bertan helburuei, zereginei, plangintzari eta produktuei buruz hitz egitea.
- Hasierako bileran parte hartzea.
- Helburu zehatzak definitzea.
- Zeregin zehatzak definitzea.
- Zereginak banatzea.
- Zereginak gauzatzeko plangintza zehaztea –bilerak eta irakasleen eta ikasleen mugikortasuna barne–.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxean, lan-plangintzari buruz hitz egin dugu			
Hasierako bileran parte hartu dugu			
Proiektukideekin batera helburu errealistak definitu ditugu			
Zeregin zehatzak banatu ditugu			
Herrialdeen arteko desberdintasunak kontuan hartuta ezarri dugu programa			
Bileretarako eta ikasleen eta irakasleen mugikortasunerako data zehatzak definitu ditugu			

3.2.2 Iguripenak.

Asmoek eta helburuek produktu jakin batzuk lortzera jotzen dute. Produktuak sortzea eta trukatzera edozein proiekturen funtsezko elementua da. Komeni da produktua egitearen kostua kontuan hartzea. Emaidza materialez gain, beste emaitza ez-material batzuk ere eragin daitezke, hala nola ikasleen, irakasleen, zuzendaritza-taldearen eta proiektuan murgildutako beste pertsona batzuen jarrerak. Era berean, merezi du proiektukideekin alderdi horietaz hitz egitea.

Planik onenak ere porrot egin dezake arazo jakin batzuk sortzen direnean. Horregatik, komeni da arazo horiek ebazteko moduari buruz hitz egitea proiektukideekin. Nazioarteko proiektuak egiten esperientzia gehien duten proiektukideek ezagutzak partekatu beharko dituzte gainerakoekin.

Gainera, gomendagarria da gisa horretako proiektuak aski emaitza onekin egin dituzten ikastetxeekin harremanetan jartzea. Horrez gain, Baliabide Pedagogikorako Zentroek, irakasleen trebakuntza-zentroek, Hezkuntza Sailak (Nazioarteko Hezkuntza eta Zientzia Elkarlanerako Bulegoak), eta abarrek ere aholkuak eta laguntza eman diezagukete.

Ekintza zehatzak

- Produktuak definitzea.
- Produktuak aurkezteko moduz, uneaz eta lekuaz hitz egitea.
- Emaidza ez-materialei buruz hitz egitea eta horiek zehaztea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Produktuak definitu ditugu			
Produktuak aurkezteko modua, unea eta lekua zehaztu ditugu			
Lortu nahi diren emaitza ez-materialei buruz hitz egin dugu			

3.2.3 Ebaluazio-plana

Ebaluazioa behar-beharrezkoa da jardueren eta ekintzen eraginkortasuna egiaztatzeko.

Emaitza onak lortuko badira, jarraipena eta gogoeta sistematikoa egin beharko da. Proiektuaren prozesuan, oinarritzkoa da egiten ari diren urrats esanguratsuenei buruzko gogoeta egitea eta urrats horiek ebaluatzea. Faseetako bakoitza ebaluatu beharko da. Zuzenketak egiteko erabiliko dira emaitzak. Urtero ebaluazio sumatiboa egingo da; egindako jarduerak ez ezik, proiektuak ikastetxean duen eragina ere ebaluatuko da. Gerta daiteke amaierako ebaluazioa soilik egitea, baina hori ez da nahikoa izango.

Prestakuntzazko ebaluazioak, berriz, beharrezko aldaketak sartzeko aukera ematen du, eta aldaketa horiek, agian, funtsezkoak izan daitezke proiektuak arrakasta izan dezan. Urratsetako bakoitzean lortutako emaitzei buruzko gogoeta ezinbestekoa da: adibidez, informazioa biltzearen eta zer hautatzen den eta zer baztertzen den erabakitzearen artean. Informazioa edo materiala amaierako emaitzarako edo produkturako esanguratsua den hartu beharko da aintzat. Etengabeko ebaluazioa ere garrantzi handikoa izango da lan-plangintzarako.

Ebaluatzeko tresnak eta metodoak ebaluatu beharreko helburuen arabekoak izango dira. Kontrol-zerrendak, galdera-sortak eta taulak erabiltzen dira gehien bat. Proiektukideen, irakasleen eta gurasoen bilerak aztertzeko baliagarriak dira. Zeuek sortutako tresnak edo proiektukideekin batera sortutakoak erabil ditzakezue (edo jada prestatutako tresnak erabil ditzakezue). Izatez, azken horiek oso erabilgarriak dira azken ebaluazioan, ikastetxe guztietako emaitzak alderatzeko aukera ematen baitute.

Eskaera-orrian definitu da proiektuaren ebaluazioarekin lotzen den hasierako informazioa. Orain, ebaluazioa egiteko une eta esparruak eta erabiliko diren tresnak zehaztu beharko dira.

Hori dela eta, proiektuaren ardura duten irakasleek eta ikasleek egin beharko dute barne-ebaluazioa. Ebaluazio horrez gain, Hezkuntza Sailak (Nazioarteko Hezkuntza eta Zientzia Elkarlanerako Bulegoak) edo ikuskapen-zerbitzuak kanpo-ebaluazioa egin dezakete, eta, hala, proiektuari lagundu.

Ekintza zehatzak

Honakoak dira fase honetako ekintza zehatz batzuk:

- Prestakuntzazko ebaluazioa eta ebaluazio sumatiboa noiz egin behar den definitzea.
- Prestakuntzazko ebaluazioa egiteko eta ebaluazio sumatiboa egiteko proiektukideek erabiltzen dituzten tresnez hitz egitea.
- Proiektukide guztientzat baliagarria izango den ebaluazio-tresna bat egiteari buruz (edo aurretik dagoen bat erabiltzeari buruz) hitz egitea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ebaluazioa egiteko uneak definitu ditugu			

Ebaluazioa egiteko tresnak definitu eta erabaki ditugu			
Barne-ebaluazioa egiteko pertsona edo talde arduraduna hautatu dugu			
Ebaluazioaren emaitzak nola erabili zehaztu dugu			

3.2.4 Informazio-plana

Ikastetxe barruan, eta ikastetxe guztien artean, komunikazio-sistema diseinatzea da proiektuaren garapen eraginkorra ahalbidetzen duen beste faktore garrantzitsu bat. Komunikatzeko metodoak eta moduak baliabide teknikoen arabekoak izango dira, baita proiektukideen arteko komunikazio erregularreko erabakien arabekoak ere.

Proiektua gauzaten duten pertsonak, bestalde, gai zehatzak eztabaidatzeko bileretan hartzen dute parte ikastetxean. Proiektuari buruzko informazioa sistematikoki aurkeztu beharko da klaustroko bileretan, gurasoekin egin beharreko bileretan, tokiko agintariekin egin beharrekoetan, eta abar.

Proiektukideak, bestalde, internet, fax, telefono, posta, eta bideo-konferentzia bidez jartzen dira elkarrekin harremanetan, baita urtean bitan egin ohi diren bileren bitartez ere. Ikasle kopuru txiki batek har dezake parte irakasleekin egin beharreko topaketa horietan.

Ekintza zehatzak

- Ikastetxeetan komunikatzeko moduei buruz hitz egitea.
- Proiektukideen arteko komunikazio-planari buruz hitz egitea.
- Proiektukideekin, ikasleekin eta irakasleekin izan beharreko komunikazio motei buruz hitz egitea.
- Proiektua ingurunean hedatzeko moduei buruz hitz egitea.
- Informazioaren aukera teknologikoei buruzko informazioa trukitzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuko lan-hizkuntza adostu dugu			
Proiektukideen arteko komunikazio-plana adostu dugu			
Internet eta posta elektronikoa dugu eskura			
Ikasleek komunikazioaren teknologia berriak erabili ditzakete ikastetxean			
Ikastetxeen artean komunikatzeko modua definitu dugu			
Emaitzak hedatzeko modua hartu dugu aintzat			

3.3 Proiektuaren prozesua eta garapena – 3. fasea

Sarrera

Aztertu diren proiektuen garapenaren eta prozesuaren azterketa abiapuntu izanik, iradokizun, gomendio edo gida bihur daitezkeen hainbat ondorio ateratzen dira proiektu berriak hasten dituzten ikastetxeetarako.

Proiektuaren garapen eta arrakasta zuzena bermatzeko, parte-hartzaileek honako puntuak hartu beharko lituzkete aintzat prozesu osoan.

Helburuak

Fase honen helburua honako alderdiak prestatzea eta eztabaidatzea da:

- Parte-hartzea.
- Lan-plangintza/tenporalizazioa.
- Topaketak.
- Trukeak.
- Gogoeta.

Zeregin eta jarduera nagusiak

- Guztiak proiektuan inplikatzeko.
- Proiektu osoko egutegiaz hitz egitea eta hori definitzea.
- Datak, topaketak eta abar koordinatzea.
- Topaketak eta trukeak antolatzea.
- Ikasleen mugikortasuna antolatzea.
- Proiektuaren barruan lan-txostena egitea.

Emaizak

- Programa.
- Topaketak.
- Ikasleen mugikortasuna.
- Gogoeta.

Parte hartzen duten pertsonak

Guztiak daude fase honetan inplikaturik (irakasleak, irakasle ez diren langileak, zuzendaritza, familiak eta ikasleak). Irakasle-talde txiki batek koordinatuko du egutegia, eta antolatuko ditu trukeak eta topaketak.

Fase honen alderdiak:

- Parte-hartzea.
- Lan-plangintza/tenporalizazioa.
- Topaketak.
- Mugikortasuna.
- Gogoeta.

3.3.1 Parte-hartzea.

Alderdirik garrantzitsuenetako bat guztien parte-hartzea bermatzea izango da:

- Irakasleena.
- Irakasle ez diren langileena.
- Zuzendaritza Taldearena.
- Gurasoena.
- Ikasleena.

Tentuz hautatu beharko dira talde bakoitzeko kideak. Postua proiektu osoan bete dezaketen pertsonak aukeratu beharko dira. Bereziki garrantzitsua izango da proiektuak irauten duen bitartean ikastetxeko parte izango diren ikasleen eta familien kasuan.

Ekintza zehatzak

- Irakasleen eta irakasle ez diren langileen inplikazioa eta partaidetza sustatzea.
- Zuzendaritza-taldearen inplikazioa eta partaidetza sustatzea.
- Familien inplikazioa eta partaidetza sustatzea.
- Ikasleen inplikazioa eta partaidetza sustatzea.
- Kanpoko laguntza lortzen saiatzea, adibidez Hezkuntza Sailarena (Nazioarteko Hezkuntza eta Zientzia Elkarlanerako Bulegoarena).

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Irakasleen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Irakasle ez diren langileen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Zuzendaritza-taldearen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Familien inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Ikasleen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Kanpoko laguntza lortzen saiatu gara			

3.3.2 Lan-plangintza/tenporalizazioa.

Proiektukideekin lan egiteko oso garrantzitsua da hasiera-hasieratik komunikaziorako lan-hizkuntza adostea. Hizkuntza bera hitz egiten ez duten parte-hartzaileak direnean, bereziki garrantzitsua da hori. Erabiltzeko aukeraren arabera eta proiektu osoan mantentzeko aukeraren arabera hautatu beharko da hizkuntza, nahiz eta herrialde parte-hartzaileetako batek amaitu aurretik proiektua uzten duen.

Lan-plangintza eta tenporalizazioa da beste alderdi garrantzitsuetako bat. Hori oso lagungarria izango da parte-hartzaileen artean ardurak zuzen mantentzeko. Gainera, zereginak modu planifikatuan egiteko aukera ematen die horrek proiektukideei. Topaketa bakoitzaren amaieran lan-plangintza eta tenporalizazioa berraztertu beharko da. Izan ere, proiektuak aurrera egin ahala, hasierako tenporalizazioan aldaketak egiten badira, ez da ezer gertatzen. Garrantzitsuena proiektua garaiz bukatzea da. Proiektuan gerta daitezkeen aldaketak ez dira, inola ere, arazo bat.

Era berean, parte-hartzen duten estamentu guztiei eta zuzendaritza-taldeari nola eta noiz emango zaien informazioa finkatu beharko da. Horrek jarraipena egiten lagunduko du, eta guztien inplikazioa bermatuko du –zuzendaritza-taldeak prozesu osoan laguntzea barne–.

Ekintza zehatzak

- Lanerako hizkuntza hautatzea.
- Lan-plangintza eta tenporalizazioa ezartzea parte-hartzaile guztientzat.
- Parte hartzen duten estamentuei informatzeko egutegia planifikatzea.
- Zuzendaritza-taldeari informatzeko egutegia planifikatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Lanerako hizkuntza hautatu dugu			
Lan-plangintza eta tenporalizazioa ezarri dugu parte-hartzaile guztientzat			
Tenporalizazioan aldaketak egin ditugu			
Parte hartzen duten estamentuei informatzeko egutegia planifikatu dugu			
Zuzendaritza-taldeari informatzeko egutegia planifikatu dugu			

3.3.3 Topaketak

Proiektukide guztien topaketak proiektuko alderdirik garrantzitsuenetako bat dira. Proiektuari ekin aurretik edo proiektuaren hasieran ez ezik, prozesu osoaren barruan eta, zehazki, proiektuaren amaieran ere garrantzitsuak dira; izan ere, proiektuaren amaieran ezinbestekoa da parte-hartzaile guztien topaketa. Horrela, talde-lana sustatzen da, eta plangintza eta ebaluazioa errazten da. Topaketak proiektukideen ikastetxeetan egin beharko lirateke, azkenean parte-hartzaileetako bakoitzak gainerako

ikastetxe proiektukide guztiak ezagut ditzan. Topaketa horietan, parte-hartzaileek lan-plangintzaren tenporalizazioan egin daitezkeen aldaketei buruz, produktuei buruz, sor daitezkeen arazoei buruz, eta abar hitz egin dezakete.

Horrez gain, familiekin ere egin beharko dira bilerak. Horrek familien etengabeko laguntza bermatuko du, eta nola lagun dezaketen argitzeko aukera izango da.

Ekintza zehatzak

- Proiektuari ekin aurretik, proiektuaren barruan eta proiektuaren amaieran proiektukide guztiak egin beharreko topaketak antolatzea.
- Familiekin egin beharreko topaketak antolatzea.
- Topaketa guztiak ebaluatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuaren hainbat fasetarako topaketak antolatu ditugu			
Proiektuaren amaierako topaketa antolatu dugu			
Familiekin egin beharreko bilerak antolatu ditugu			
Topaketa guztien ebaluazioa egin dugu			

3.3.4 Mugikortasuna

Comenius proiektuak mota guztietako mugikortasunak errazteko diseinatu dira: ikasleena, irakasleena, zuzendaritza-taldeena, eta ikastetxe proiektukideetara egin beharreko bisitaldiei dagozkienak. Mugikortasunak pertsonen trukea ez ezik, proiektu osoaren barruan egiten den materialen trukea ere adierazi nahi du.

Haatik, ikasleen mugikortasuna da proiektu askoren alderdirik interesgarrienetako bat. Erakunde laguntzaileen arteko harremanak estutzen laguntzen du, eta Europako dimentsioaren funtsezko alderdia da. Izan ere, beste herrialde bateko bizimodua ezagutzeko aukera ematen du, eta Europako beste eskualde bateko ikastetxeetan nola lan egiten den jakiteko parada ematen du. Beste kultura batzuekiko harremana oinarrizko faktorea da atzerriko hizkuntzen ikaskuntzan. Horizonteak zabaltzea ahalbidetzen du eta, horrenbestez, norberaren kulturari buruzko gogoeta kritikoa egiteko aukera ematen du. Irakasleen mugikortasunak zuzeneko harremana errazten du, eta, hortaz, lana eraginkorragoa izan dadin egiten du. Zuzendaritza-taldeetako kideen arteko mugikortasunak, bestalde, kide horien laguntza bermatzen du.

Produktuen eta materialen trukeak, berriz, ikasleak, irakasleak eta familiak motiba ditzake. Interesa gaineratzen du, eta irakatsi eta ikasteko oso aukera baliagarriak eskaintzen ditu.

Ekintza zehatzak

- Proiektukideekin ikasleak trukitzea.
- Proiektukideekin irakasleak trukitzea.

- Proiektukideekin zuzendaritza-taldeko trukeak egitea.
- Proiektukideekin produktuak eta materialak trukitzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleen mugikortasuna aurreikusi dugu			
Irakasleen mugikortasuna aurreikusi dugu			
Zuzendaritza-taldeko kideen mugikortasuna aurreikusi dugu			
Produktuen eta materialen trukea planifikatu dugu			

3.3.5 Gogoeta.

Behar-beharrezkoa da prozesuaren une guztietan gogoeta egitea –proiektukideetako bakoitzak bere baitan egiten duen gogoeta zein guztientzako eta proiektu osorako egiten den gogoeta–. Ikastetxe guztiek ezagutu beharko lukete proiektuaren garapena. Horrela, parte-hartzaile guztiak egoki informatuta badaude, errazagoa izango da guztien inplikazioa, eta, gainera, errazago egingo du bere proiektua ikastetxe osoak.

Proiektuak jarrai dezan lortuko bada eta arrakasta izango badu, ikasleen motibazioari eusteko neurriak hartu beharko dira. Horrez gain, garrantzi handikoa da parte-hartzaile guztiek sormenerako, malgutasunerako eta ekimenerako espazioa izatea. Hori dela eta, proiektuko parte-hartzaileetako bakoitzaren trebeziez baliatzeko aukera izango da, eta modu interesgarrian eta dinamikoan garatu ahal izango da.

Proiektu bati ekin aurretik, finantziazioan lagundu dezaketen kanpoko diru-iturriak hartu beharko dira aintzat. Izan ere, askotan, proiekturako jasotzen den dirua ez da nahikoa helburu guztiak lortzeko. Horrenbestez, kanpoko baliabideei esker, proiektuek finantziazioaren gabeziagatik edo arlo horretako esperientzia ezagatik porrot egingo ez dutela bermatuko da. Gainera, kanpoko laguntza hori proiektu osoan baloratu beharko da, diru gehiago eskatu behar den jakiteko –adibidez, produktuak lantzeko edo topaketak egiteko–.

Talde-lanak gauza naturala izan beharko du edozein elkarlan-proiektutan. Oso praktika garrantzitsua da ikasleentzat zein irakasleentzat.

Ekintza zehatzak

- Bide zuzenean gauden hausnartzea.
- Aldatu beharko diren alderdiei buruz gogoeta egitea.
- Beste ildo batetik jo behar den hausnartzea.
- Ikastetxean proiektuaren garapenari buruz informatzea.
- Motibazioari eusteko neurri egokiak hartzea.
- Proiektukide guztiei sormenerako, malgutasunerako eta ekimenerako espazioak uztea.
- Kanpoko diru-iturrien jarraipena egitea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Bide zuzenean al gaude?			
Gauzaren bat aldatu behar al da?			
Beste ildo batetik eraman behar al da proiektua?			
Ikastetxean proiektuaren garapenari buruz informatu dugu			
Motibazioari eusteko neurri egokiak hartu ditugu			
Proiektukide guztiei sormenerako, malgutasunerako eta ekimenerako espazioak utzi dizkiegu			
Kanpoko diru-iturrien jarraipena egin dugu			
Lan-taldean sorrera piztu dugu			

3.4 Proiektuaren emaitzak – 4. fasea**Sarrera**

Proiektuko elementurik garrantzitsuenetako bat emaitzak dira (produktuak eta emaitza ez-materialak). Proiektuaren hasieran planifikatzen dira, eta proiektuak aurrera egin ahala gauzatzen dira, helburuekin guztiz lotuta.

Planifikatu diren eta proiektukideek onartu dituzten produktuak diseinatzearen eta egitearen mende egongo da, inolako zalantzarik gabe, proiektuaren arrakasta. Prest daudenean, ikastetxeari, tokiko inguruneari eta ikastetxe proiektukideei erakutsiko zaizkie. Proiektuan inplikaturako ikasleek eta irakasleek euren arrakastatzat joko dute eta poztasunez hartuko dute. Hori oso lagungarria izango da motibazioari eusteko eta beste proiektu batzuei ekiteko. Jarduerekin jarraitzeko kemena emango du.

Fase horretan, oso garrantzitsua da produktuak ikastetxe osoari, tokiko inguruneari eta proiektukide diren ikastetxeei nola eta noiz aurkeztu beharko zaizkien ezartzea. Proiektukide guztiei gogorarazi behar zaie produktuak trukatu behar dituztela.

Produktuez gain, emaitza ez-materialak ere badaude, eta ikus daitezkeenak bezain garrantzitsuak dira. Proiektu bat garatzean, dena zehatz-mehatz planifikatu bada ere, aintzat hartu eta ebatzi behar diren ezusteko gertakariak eta/edo gorabeherak sortzen dira. Horrek, argi eta garbi, garatzen ditu eta pizten ditu elkarlana, talde-lana, autonomia, nor bere buruarekiko konfiantza eta beste gaitasun batzuk. Ikasleen arteko harremanak eta ikasleen eta irakasleen artekoak hobetu ohi dira, eta talde-lanak jarrera positiboak bultzatzen ditu.

Helburuak

Honakoak dira fase horren emaitzak:

- Planeatu diren produktuak egitea, aurkeztea eta hedatzea.
- Jakintzak zabaltzea, jarduerak hobetzea eta beste batzuk eskuratzea, eta jarrera jakin batzuk garatzea.

Helburu horiei dagokienez, komeni da ondoren aditzera ematen diren alderdiei buruz hitz egitea –alderdi horiek produktuekin eta emaitza ez-materialekin lotzen dira–:

- Proiektuaren alderdi interdiziplinarioa.
 - Produktuaren formatu egokia.
 - Produktuak ikastetxean, eta beste leku batzuetan, aurkezteko modua eta unea.
 - Produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa erabiltzea.
 - Denbora aprobetxatzea.
 - Ikastetxean Europako dimentsioa areagotzeko proiektuak duen eragina finkatzea.
 - Proiektuak ikasleengan, irakasleengan, ikastetxeko langileengan, familiengan eta tokiko ingurunean duen eragina finkatzea.
- Etorkizuneko proiektuetarako ideiak.

Zeregin eta jarduera nagusiak

Fase horretan honako zeregin eta jarduera nagusiak gauzatu beharko dira:

- Produktuen motak eta formatuak definitu beharko dira, ikasleen aukerak eta ikastetxearen baliabideak kontuan izanik.
- Finantziario-bitarteko osagarriak lortzeko aukerez mintzatu beharko da.
- Prozesua eta produktuen aurkezpena etengabe zaindu beharko da.
- Produktuak ikastetxe proiektukideei helarazi beharko zaizkie.
- Lortutako emaitza ez-materialak aztertu beharko dira.
- Produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa erabiltzea planifikatu beharko da.
- Proiektu berriak egiteari buruz hitz egin beharko da.

Emaitzak

Fase honetan bi motako emaitzak daude: materialak (produktuak) eta ez-materialak (emaitzak). Produktuak hainbat formatutakoak izan daitezke, betiere proiektuaren gaiaren arabekoak, ikasleen aukeren arabekoak eta ikastetxeko baliabideen arabekoak:

- Informazio-materiala (liburuak, liburuxkak, eta abar).
- Material artistikoa (marrazkiak, pinturak, eskulturak, eta abar).
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako produktuak (CDak, web-orriak).

Emaitza ez-materialak besteak bezain garrantzitsuak dira, eta zuzenean lotzen dira jakintzarekin, trebetasunekin, irakatsi eta ikasteko teknikekin, estrategiekin eta parte hartzen duten pertsonen jarrerekin.

Produktuak zein emaitza ez-materialak ezinbestekoak dira proiektuak arrakasta izan dezan.

Parte hartzen duten pertsonak

Fase honetan guztiek hartzen dute parte, ikasleek, irakasleek, zuzendaritza-taldeak, irakasle ez diren langileek, familiek eta izan daitezkeen laguntzaileek.

Landu beharreko alderdiak

Proiektuaren arrakastan funtsezko eragina duten emaitzekin ematen zaio hasiera fase honi. Argibideak, oharrak eta iruzkinak praktika onen adibideekin lotzen dira.

1. Produktuak.
2. Emaitza ez-materialak.
3. Produktuen aurkezpena.

3.4.1 Produktuak.

Comenius proiektua egitean hainbat produktu lantzen dira, eta produktu horien izaera eta formatua proiektuaren gaiaren arabera da, baita baliabideen arabera, ikasleen gaitasunen arabera, irakasleen gaitasunen arabera, eta abar.

Proiektuaren hasieran planifikatu dira, eta ikastetxeak produktuak lantzeko dirua jaso du (zenbateko estandarra deritzana). Produktu gehienak ikastetxeetan geroago erabiliko diren irakatsi eta ikasteko materialak izango dira.

Irakasleek eta ikasleek osatutako talde batek hartuko du parte produktuen sorreran, eta talde horrek ahalik eta ikasle gehieni aurkeztuko dizkio produktuak. Aurkezpen hori ikastetxean bertan, tokiko ingurunean eta ikastetxe proiektukideetan egin beharko da, eta horretarako modurik egokiena antolatzea oso garrantzitsua izango da. Horrek produktuen formatuan izango du eragina, ikastetxe proiektukideetara posta bidez garraiatzea edo posta elektronikoko bidez igortzea hartu beharko baita kontuan, besteak beste. Inprimatutako formatua eta, aldi berean, formatu elektronikoa izan dezake produktuak, beste herrialde batzuetara errazago igortzeko.

Liburu bat izan daiteke, adibidez, produktu bat, eta bertan kapitulu bakoitza ikastetxe proiektukide batek idatzi dezake, nahiz eta liburu osoaren ardura ikastetxe bakar batena besterik ez den. Horregatik, azken erabakia hartu aurretik, finantziario-bitartekoak eta ikastetxearen baliabide teknikoak aztertu beharko dira.

Comenius produktuek testu-formatua dute askotan. Horrenbestez, liburuak, liburuxkak, prospektuak, kronikak, karpetak, gidak, txartelak, bildumak (istorioena, elezaharrena, poemena, esaera zaharrena, atsotitzena, dokumentuena...), ikerketako emaitzak, egunerokoak, postalak (gabonak edo pazkoa zoriontzekoak), hiztegiak (gai jakin batekoak edo hizkuntza askotarikoak), mapak, grafikoak eta abar izan daitezke.

Beste mota bateko produktuak, berriz, material eta lan artistikoak dira, hala nola marrazkiak, pinturak, eskulturak, esku-lanak, litografiak, mozorroak, horma-irudiak,

argazkiak, zirriborroak, imitazioak, erakusketak, antzezlanak, dantza-emanaldiak, edo musikalak.

Askotan informazioaren eta komunikazioaren teknologietako produktuak lantzen dira; adibidez, web-orri bat (ikastetxe jakin batek sortua edo komuna), CD-ROM bat, bideo-hitzaldiak, soinu-zintak, bideo-zintak, eta diapositibak.

Produktu izan daitezke, halaber, bidaiak, lehiaketak, saioak, eztabaidak, hitzaldiak eta antzeko beste batzuk.

Proiektua egitean, hainbat produktu sortzen dira publizitatea emateko helburuarekin. Produktu horiek honelakoak izan daitezke:

- Iragarki-taulak –ikastetxearen barruan eta kanpoan–, proiektuari eta proiektukideei buruzko informazioarekin.
- Bolalumak, txapak, kamisetak, eta abar proiektuaren logotipoarekin.

Batzuetan hain ohikoak ez diren produktuak izan daitezke, hala nola proiektukideek ikastetxe aurrean landatutako “Comenius” izeneko zuhaitza.

Ikusi dugun bezalaxe, produktuen formatua eta edukia askotarikoa izan daiteke, betiere proiektuaren gaiaren eta helburuaren arabera, ikastetxearen aukeren arabera eta sormenaren arabera. Haatik, zerrendatu ditugun produktuak beste ideia batzuk bilatzen lagun dezaketen adibideak baino ez dira.

Ekintza zehatzak

- Produktuen motei eta formatuei buruz hitz egitea.
- Produktua egiteko plangintza aztertzea, haren aurkezpena kontuan izanik.
- Produktua edo produktuak egingo dituzten taldeak aukeratzea.
- Beharrezko materialak eta baliabideak biltzea (baita babesleak bilatzea ere).
- Produktua egiteko prozesuaren jarraipena egitea.
- Produktuak proiektukide guztiei helaraztea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Produktuen mota eta formatua zehaztu dugu			
Produktuak egiteko aukerei buruz hitz egin dugu, betiere baliabideak eta ekipamendu teknikoa kontuan izanik			
Beharrezko bitartekoak eta baliabideak bildu ditugu			
Produktuez arduratuko diren taldeak edo taldea hautatu ditugu			
Produktuak egiteko prozesuaren jarraipen sistematikoa egin dugu			
Produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa nola erabiliko ditugun definitu dugu			
Proiektukideen produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa nola erabiliko ditugun definitu dugu			

3.4.2 Emaidza ez-materialak

Comenius proiektu bat egitean, produktuez gain, emaitza ez-materialak ere lortzen dira: ikasleen eta irakasleen jakintzaren, trebetasunen eta jarreraren arloko aldaketak. Emaidza ez-materialak ikastetxeari –entitate gisa– buruzkoak ere izan daitezke. Emaidza horien zati bat proiektuaren hasieran planifikatu da, eta eskaera-orrian formulatu da; alabaina, askotan oso garrantzitsuak diren programatu gabeko emaitzak lortzen dira.

Comenius proiektuak egitean, askotariko arloetako emaitza ez-material ugari lor daitezke.

Jakintzaren arloko adibideak

- Proiektukideen herrialdeak hobe ezagutzea (geografia, kultura, ekonomia, eta abar).
- Beste hezkuntza-sistema batzuk ezagutzea (curriculum, ordutegiak, irakatsi eta ikasteko metodoak, eta abar).
- Beste bizimodu, ohitura eta aztura batzuk ezagutzea.
- Aniztasuna eta desberdintasunak ezagutzea.
- Europar Batasunaren funtzionamendua ezagutzea, baita Europako hezkuntza-programen funtzionamendua ere.
- Proiektukideen hizkuntzari buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratzea (proiektuaren lan-hizkuntzaz bestelakoak).
- Norberaren hiririari eta eskualdeari buruzko ezagutza areagotzea.

Trebetasunen arloko adibideak

- Lan-hizkuntzan irakurtzeko eta idazteko ohiturak garatzea, baita ahozko adierazpena eta ulermena areagotzea ere.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera garatzea (informazioa biltzea, testuak ordenagailu bidez idaztea, grafikoak egitea, dokumentuak eskaneatzea, internet eta posta elektronikoa erabiltzea, CD-ROMean eta soinu-zintetan grabatzea, eta abar).
- Beste herrialde batzuetako ikasleen eta irakasleen artean lagunak egitea eta harremani eustea.
- Ikasleen eta irakasleen arteko komunikazioa hobetzea.
- Ikasleen eta irakasleen talde-lana hobetzea.
- Ikasteko hainbat modu erabiltzea.
- Nazioarteko proiektu bat kudeatzea.

Jarreraren arloko adibideak

- Europara irekitzea.
- Europar Batasunaren parte izatearen ideia bere egitea.
- Aniztasunaren onarpen maila gehitzea.
- Tolerantzia gehitzea.
- Nork bere autoestimua areagotzea.
- Nork bere ikastetxeaz harro egotea.
- Irakasleek ikasleei autonomia handiagoa ematea.
- Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatzea.
- Europako beste herrialde batzuk gehiago ezagut daitezen sustatzea.
- Nazioarteko harremanak zabaltzea.

Aditzera eman den bezalaxe, emaitza ez-materialak ere ikastetxearekin –entitate gisa– lotzen dira. Proiektukideen herrialdeekin izandako esperientzia onek, adibidez, aldaketak eragin ditzakete ikastetxean, ikastetxearen kalitatea handituz.

Proiektuaren ondorioak hedatzeak, bestalde, proiektuarekin zuzenean lotzen ez diren pertsonengan ere izango du eragina, hala nola inguruneko pertsonengan. Hauteman denez, gero eta ikasle gehiagok hautatzen dute ikastetxe hori, eta ikastetxeak ingurunean duen ospea eta iritzi ona areagotzea da, hain zuzen ere, Comenius proiektu baten emaitza ez-materiala bat.

Ekintza zehatzak

- Proiektuari esker lor daitezkeen emaitza ez-materialak buruz hitz egitea, eskolan nahiz ingurunean.
- Proposatutako diren emaitza ez-materialak lortzeko aukera emango duten zeregin zehatzen jarraipena egitea.
- Lortu diren emaitza ez-materialak biltzea, programatuak zein programatu gabek.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Jakintzekin lotzen diren emaitza ez-materialak buruz hitz egin dugu			
Jarrerekin lotzen diren emaitza ez-materialak buruz hitz egin dugu			
Trebetasunekin lotzen diren emaitza ez-materialak buruz hitz egin dugu			
Ikastetxearekin –entitate gisa– lotzen diren emaitza ez-materialak buruz hitz egin dugu			
Ingurunearekin lotzen diren emaitza ez-materialak buruz hitz egin dugu			
Emaitza ez-materialen lorpen maila nola ebaluatu eta neurtuko dugun pentsatu dugu			

3.4.3 Produktuen aurkezpena.

Produktu batzuk landu dira, eta ikastetxeari, tokiko inguruneari eta proiektukideei aurkeztu behar zaizkie. Guztiei lanaren emaitzak erakusteko aukera paregabea da. Ondo antolatuz gero, ikastetxea sustatzeko garrantzi handiko elementua izan daiteke. Proiektukideen ikastetxeetan ere aurkeztu ahal izango dira produktuak.

Aurkezpena egiteko unea planifikatu beharko da, eta ikastetxeek plangintza hori errespetatu beharko dute. Proiektukide guztiek ikastetxeetako batean egin beharreko topaketan egingo da ikastetxe guztientzako produktuen aurkezpena, orokorrean ikasturtearen amaieran egingo da.

Aurkezpena egiteko bereziki antolatutako egintza izan daiteke, eta egintza horretara gonbida daitezke ikasleak, irakasleak, zuzendaritza-taldea, irakasle ez diren langileak, gurasoak, tokiko agintaritzako ordezkariak, babesleak eta eskualdeko edo estatuko hedabideak. Orokorrean, aurkezpen horiek erakusketekin eta filmen proiektioekin osatzen dira.

Azken topaketan –proiektuaren ondorioak ebaluatzeko eta jasotzeko egiten den topaketan, alegia–, egoki prestatu beharko dira produktuak. Kontuan izan behar dugu produktu berak hainbat bertsio izan ditzakeela (paperezkoa, elektronikoa, erakusketakoa, erakusketari buruzko filmarena, eta abar).

Ekintza zehatzak

- Produktuaren formatua definitzea, baita ikastetxean eta ingurunean aurkezteko unea ere.
- Aurkezpena prestatzeko pertsona arduratsuak hautatzea.
- Produktuen aurkezpenera gonbidatuko diren pertsonak hautatzea.
- Ikastetxeek igorritako produktuen aurkezpena prestatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Produktuen aurkezpena programatu dugu			
Aurkezpena prestatzeaz arduratuko den taldea hautatu dugu			
Aurkezpenera gonbidatutako pertsonen zerrenda egin dugu			
Aurkezpenera gonbidatutako hedabideetako ordezkarien zerrenda prestatu dugu			
Ikastetxe proiektukideek landutako produktuen aurkezpena programatu dugu			

3.5 Eragina, ondorioak eta hedapena – 5. fasea

Sarrera

Pentsa daiteke, Comenius 1 proiektua garatzen duen ikastetxe batean, proiektu horrek nolabaiteko eragina sortuko zuela Europako dimentsioaren tratamenduari dagokionez: ikastetxeko curriculumaren eta hezkuntza-proiektuaren gaineko eraginak; ikasleen eta irakasleen hainbat gaitasunen hobekuntza; ikastetxearen dinamikaren hobekuntza; eta kanpora zabaltzearen ondoriozko balioen hobekuntza. Aldaketa horiek barne hartzeko eta finkatzeko garaian, funtsezkoa da aldaketa horiek hausnartzea eta aztertzea, eta aldaketen kontzientzia hartzea.

Fase honen ondorioz, honako galderei erantzun beharko zaie: Zer ikasi dugu? Zer integratu dugu? Nola integratu dugu? Eta nola hedatu dugu?

Helburuak

- Proiektua gauzatzearen ondorioz, ikastetxean gertatu diren aldaketez eta sortu diren produktuez jabetzea, eta aldaketa eta produktu horiek baloratzea.
- Proiektuak honako alderdietan dituen eraginak sistematikoki identifikatzea eta txertatzea:
 - Ikastetxeko hezkuntza-proiektua.
 - Curriculuma.
 - Ikasleen gaitasunen hobekuntza.
 - Irakasleen lanbide-hobekuntza.
 - Ikastetxearen prestigioa.
 - Estrategia metodologikoak.
 - Irakasleentzako materialak.
 - Ikasleentzako materialak.
 - Europako dimentsioa hezkuntza-erkidegoan.
 - Jarrerak.
- Ikastetxearen barruan gertatutako aldaketak eta sortutako produktuak hedatzea: ikasleen, irakasleen, gurasoen, eta irakasle ez diren langileen artean, besteak beste.
- Ikastetxeak egindako lana hezkuntza-erkidegoaren gainerakoari eta gizarteari, oro har, ezagutaraztea (artikuluak, hitzaldiak, komunikazioak, trukeak, erakusketak, aurkezpenak).

Zeregin eta jarduera nagusiak

Fase honetan honako zeregin eta jarduera nagusiak gauzatu beharko dira:

- Proiektuak ikastetxearen garapenean dituen ondorioei buruzko gogoeta egin beharko da.
- Proiektuaren ondorioz ikastetxean egindako berrikuntzak, hobekuntzak eta aldaketak identifikatu beharko dira.
- Ikasleei beste gaitasun batzuk eskuratzeko aukera eman dieten alderdi metodologikoak hautatu eta txertatu beharko dira.
- Proiektuak sortu dituen eta irakaskuntzarako material bihur daitezkeen produktuak hautatu eta txertatu beharko dira, baita proiektuak sortu dituen eta ikaskuntzarako material bihur daitezkeen produktuak ere.
- Curriculumean Europako dimentsioa optimizatzen eta osatzen duten jakintzak, balioak eta jarrerak hautatu eta txertatu beharko dira, eta dagozkien jarduerak planifikatu beharko dira.
- Proiektuak hezkuntza-erkidegoarentzat zein herritarrentzat, oro har, sustatutako hobekuntzak eta berrikuntzak jakinarazteko eta hedatzeko jarduerak antolatu eta gauzatu beharko dira.
- Comenius proiektuaren ondorioak hezkuntza-erkidegoan eta hezkuntzaren arloko hainbat talde profesionalen artean (elkarte, berrikuntza pedagogikoko mugimendu, sindikatu eta abarren artean) hedatu beharko dira. Horretarako, ikastetxeko ekintzez eta argitalpenez baliatuko da.
- Webgune bat eratu eta argitara eman beharko da.

Emaitzak

Fase honetan bi motako emaitzak daude: emaitza ez-materialak eta materialak.

Emaitza ez-material nagusiak dira: curriculumean eta, beraz, ikastetxeko eguneroko lanean txertatu beharreko irizpideak, akordioak eta prozedurak.

Emaitza material nagusiak dira: ikastetxe barruko dokumentuak, irakatsi eta ikasteko materialak, argitalpenetako artikulak, berrikuntza eta trukeko jardunaldietako komunikazioak, askotariko ikus-entzunezko materialak (CD-ROMak, DVDak, bideoak...) eta webgunea –proiektuak eragindako hobekuntzak eta berrikuntzak hedatzeko erabiliko dena–.

Parte hartzen duten pertsonak

Zuzendaritza-taldeak eta irakasleek, batik bat, hartuko dute parte proiektuaren ondorioak aztertzeke eta hedatzeko fase honetan; alabaina, ikastetxe guztiak egon beharko du modu batean edo bestean inplikaturik.

Fase honen alderdiak

1. Proiektuak ikastetxean izan duen eragina aztertzea eta identifikatzea.
2. Proiektuak eragindako berrikuntzak eta hobekuntzak hautatzea eta txertatzea.
3. Proiektuak eragindako berrikuntzak eta hobekuntzak hedatzea.

3.5.1 Proiektuak ikastetxean izan duen eragina aztertzea eta identifikatzea

Proiektuak ikastetxean sortutako eragina aztertzea eta horren kontzientzia hartzea dira fase hau definitzen duten elementuak edo baldintzak.

Lehenik, proiektua finkatuko bada, proiektuak hezkuntza-ingurunean (irakasleengan, ikasleengan, ikastetxean, familiengan, inguruko beste ikastetxeetan eta abar) duen garrantzia, eragina edo inpaktua aztertu eta ebaluatu beharko da.

Bigarren, denbora planifikatu beharko da proiektuak ikastetxean izan duen eraginari buruz banaka eta taldean gogoeta egin ahal izateko, eta protagonistetako bakoitzarentzat eta ikastetxeko hainbat arloentzat eragin diren aldaketak eta berrikuntzak agerian uzteko. Horrela, curriculumean eta hezkuntza-praktikan aldaketa horietako zein txertatu nahi den zehaztu ahal izango da.

Ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren gaineko eragina:

- Talde-lana eta komunikazioa hobetzea.
- Plangintza hobetzea.
- Irakasleen beste trebakuntza-premia batzuk garatzea.

Curriculumaren gaineko eragina:

- Europako dimentsioa barne hartzea, hizkuntza eta kultura arloko edukiekin.
- Lan interdiziplinarioa areagotzea.
- Ebaluazio-tresnak finkatzea (edukiena, materialena, ...).

Ikasleen gaineko eragina:

- Norberaren gaitasunen ikuskera hobetzea.
- Komunikazio-trebetasunak hobetzea.
- Gizarte-trebetasunak hobetzea.
- Auto-ebaluazioa hobetzea.

Irakasleen gaineko eragina:

- Atzerriko hizkuntzen arloko hizkuntza-gaitasunak hobetzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien gaineko jakintza areagotzea.
- Ikasleen trebetasunen eta gaitasunen ebaluazioan hobetzea.

Ekintza zehatzak

- Banakako eta taldekako berraztertze-lanak egiteko denbora planifikatzea eta aurreikustea.
- Proiektuak ikastetxearen garapenean dituen ondorioei buruzko gogoeta egitea.

- Berrikuntzak, hobekuntzak, aldaketak eta produktuak identifikatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Lan-plangintzan gogoetarako denbora sartu da			
Proiektuak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan izan dituen eraginak aztertu dira			
Irakasleen inplikazioa handiagoa izan da			
Talde-lana hobetu da			
Hezkuntza-plangintza hobetu da			
Ikastetxearen barruko komunikazioa hobetu da (irakasleak, ikasleak, familiak)			
Irakasleentzako beste trebakuntza-premia batzuk hauteman dira			
Proiektuak curriculumean izan dituen eraginak hauteman dira			
Hizkuntzen jakintza hobetzeko beste eduki batzuk txertatu dira curriculumean			
Beste herrialde batzuei buruzko estereotipoak gutxitu dira			
Lan interdisciplinarioa areagotu da			
Edukiak, materiala, eta abar ebaluatzeko beste tresna batzuk txertatu dira			
Ikasleen jakintzak eta trebetasunak hobetu dira			
Ikasleen gizarte-trebetasunak hobetu dira			
Ikasleen komunikazio- eta adierazpen-gaitasunak hobetu dira			
Ikasleek haien buruaren eta gaitasunen gainean duten ikuskera hobetu da			
Irakasleen hizkuntza-gaitasunak hobetu dira (beste hizkuntza batzuen jakintza)			
Irakasleek ikasleengan dituzten iguripenak hobetu dira			
Ikasleei autonomia handiagoa eman zaie ikaskuntza-prozesuan			
Irakasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologien jakintza hobetu dute			
Irakasleek autoestimua hobetu dute			
Ikastetxearen prestigioa hobetu da			

3.5.2 Proiektuak eragindako hobekuntzak hautatzea eta txertatzea

Proiektuak ikastetxean dituen eraginak identifikatu ostean, eraginik interesgarrienak eta epe labur, ertain eta luzean barne har daitezkeenak hautatu beharko dira. Ondoren, jarraipena emateko eta edukien, metodologiaren eta estrategien erabilera orokortzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.

Ekintza zehatzak

- Proiektuak curriculumean sortutako edukiak eta produktuak hautatzea eta txertatzea –ikastetxearen hezkuntza-proiekturako egokiak–.
- Proiektuan ikasleek eskuratutako gaitasunen (trebetasunen, abilezien...) ondoriozko alderdiak hautatzea eta curriculumean txertatzea.

- Ikasleei beste gaitasun batzuk eskuratzeko aukera eman dieten alderdi metodologikoak hautatzea eta curriculumean txertatzea.
- Proiektuak sortu dituen eta irakaskuntzarako material bihur daitezkeen produktuak hautatzea eta erabiltzea.
- Proiektuak sortu dituen eta ikaskuntzarako material bihur daitezkeen produktuak hautatzea eta erabiltzea.
- Europako dimentsioa optimizatzen eta osatzen duten jakintzak, balioak eta jarrerak hautatzea eta curriculumean txertatzea, eta dagozkien jarduerak planifikatzea. Europako ezagutza barne hartzea (Europako parte izatearen ideiaaren aldeko jarrerak sustatzea, eta abar).
- Erabakiak hartzea eta abian jartzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuak sortutako edukiak eta produktuak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Ikasleek eskuratutako gaitasunak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Beste gaitasun batzuk eskuratzeko alderdi metodologikoak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Irakasleentzako material bihurtzeko produktuak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Ikasleentzako material bihurtzeko produktuak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Europako dimentsioari dagozkion jakintzak, balioak eta jarrerak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Aurreko alderdiak gauzatzeko beharrezko erabakiak hartu dira			

3.5.3 Hedapena

Proiektuan oinarrituta gaineratu diren berrikuntzei buruz etengabe informatzeak, bestalde, inplikatu guztien kohesioa eta konplizitatea sustatzen du. Azken finean, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren inguruko adostasuna errazten du eta, aldi berean, irakasleen autoestimua eta ikastetxearen prestigioa hobetzen du.

Talde-lanari eta komunikazioaren arintasunari esker, errazagoa da erabakiak hartzea, proiektuko lorpenei jarraipena emateko neurriak hartzea, metodologiaren eta estrategien erabilera orokortzea, eta, laburbilduz, proiektuek ikastetxeetan sortutako hobekuntzen eta berrikuntzen eragina denboran luzatzea.

Haatik, oso garrantzitsua da egiten den guztiaren berri ematea gizarteari. Hala, hezkuntzarekin lotzen diren hainbat sektoretako eta ikastetxetako profesionalen artean eztabaida eta trukea erraztuko da, eta horien izen ona eta aintzatespen soziala areagotuko da, baita ordezkatzeko dituzten hezkuntza-erakundeena ere. Gainera, berrikuntza pedagogikoa sustatuko da.

Fase honetan, ezinbestean ezarri behar dira proiektuan egindako lana kanpoan hedatzeko mekanismoak, baita txertatutako berrikuntzak eta hobekuntzak jakinarazteko mekanismoak ere.

Ekintza zehatzak

- Irakasleei eta irakasle ez diren langileei zuzendutako informazio-jarduerak antolatzea eta gauzatzea.
- Familiei zuzendutako informazio-jarduerak antolatzea eta gauzatzea.
- Ikasleei zuzendutako informazio-jarduerak antolatzea eta gauzatzea.
- Proiektuaren ondoriozko berrikuntzak informatzeko eta hedatzeko jarduerak antolatzea eta gauzatzea, honakoei zuzendutakoak hain zuzen ere: beste irakasle batzuei, hezkuntza-entitateei, ikuskapenari, tokiko administrazioei, hedabideei eta herritarrei, oro har.
- Comenius proiektua eta haren ondorioak ikastetxearen ekintza eta argitalpen guztietan hedatzea (sarrera libreko egunetan, liburuxketan, ikastetxeko aldizkarian, webgunean...).
- Comenius proiektuaren emaitzak zuzendarien, ikasketa-buruen eta tokiko erkidegoaren bileretan hedatzea.
- Comenius proiektuaren emaitzak hedabideetan hedatzea.
- Webgune elkarreragile bat eratzea eta argitara ematea.
- CD-ROMak, DVDak eta bideoak sortzea eta argitara ematea.
- Aldizkari espezializatuetan eta hedapen-aldizkarietan artikuluak argitara ematea.
- Comenius proiektuaren emaitzak bilduko dituen lagina antolatzea.
- Hezkuntza arloko mintegietan eta biltzarretan parte hartzea.
- Comenius sareen erabilera sustatzea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleei zuzendutako informazio-jarduerak antolatu eta egin dira			
Irakasleei zuzendutako informazio-jarduerak antolatu eta egin dira			
Familiei zuzendutako informazio-jarduerak antolatu eta egin dira			
Proiektuaren emaitzak jakinarazteko jarduerak antolatu dira			
Ikastetxeko argitalpenetan proiektuaren emaitzak eman dira argitara			
Proiektuko emaitzak beste ikastetxe batzuetan jakinarazi dira			
Proiektuko emaitzak tokiko erkidegoari jakinarazi zaizkio			
Webgune elkarreragilea egin da			
Proiektuko emaitzak azaltzeko erakusketa antolatu da			
Proiektuko emaitzak mintegietan edo biltzarretan jakinarazi dira			
Comenius sare baten partaide gara			

3.6 Jarraipena – 6. fasea

Sarrera

Hezkuntza-proiektuetan Europako dimentsioa garatzea eta zabaltzea izango da Comenius proiektuen helburu bat. Comenius proiektu baten eraginek eta jarraipenak hala eskatzen dute.

Fase honetan, beraz, proiektuaren ondoriozko hobekuntzak finkatzeko eta garatzeko modua eta hobekuntza horiei jarraipena emateko modua planteatu beharko da. Helburu horri garrantzi handiagoa emateko, komeni da nazioarteko jardueren edo Europako jardueren arduradunaren edo koordinatzailearen irudia sortzea ikastetxean.

Helburuak

Honakoak dira fase honen emaitzak:

- Proiektua gauzatzearen ondorioz, ikastetxean bertan gertatu diren aldaketak finkatzea.
- Barne hartu eta finkatu nahi diren aldaketak eta hobekuntzak sustatzeko baliabide, estrategia eta teknika erabilgarrien eta eraginkorren erabilera mantentzea eta garatzea.
 - Beste herrialde batzuetako ikastetxeekin trukeak eta harremanak egitea.
 - Nazioarteko sareetan parte hartzea.
 - Eskola arloko posta-mezuak trukitzea eta “chat”ak mantentzea.
 - Webguneak.

Zeregin eta jarduera nagusiak

- Proiektuan erabilitako baliabideak, estrategiak, teknikak eta abar identifikatzea, betiere Europako dimentsioaren sustapenean eta/edo ikastetxearen garapenean aldaketak eta hobekuntzak eragiteko eraginkorrak izan direnak.
- Ikastetxearen curriculumean, programazioetan eta funtzionamenduan gaineratu beharreko aldaketei buruzko erabakiak hartzeko garaian, adostasuna lortzea.
- Lehentxeago aditzera emandako alderdiak osatzeko aukera emango duten ikastetxeko antolamendu-alderdiak sortzea edo aldatzea.

Emaitzak

Proiektuaren bitartez lortutako arrakastak finkatzeko irizpideak, akordioak, baldintzak eta prozedurak izango dira fase honetako emaitzak.

Parte hartzen duten pertsonak

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak eta irakasleek, batik bat, hartuko dute parte fase honetan; alabaina, ikasleek ere hartuko dute parte proposamen horiek aplikatzeko zereginen.

Fase honen alderdiak

Proiektua finkatzeko eta proiektuari jarraipena emateko fase honetan, hiru alderditan biltzen dira orientabideak eta aholkuak:

1. Finkapena.
2. Jarraipena.
3. Eskakizunak/Baldintzak.

3.6.1 Finkapena

Comenius proiektu batean parte hartzearen ondorioz ikastetxeetan eragindako praktika onak (curriculum, estrategia metodologikoak, produktuak, jarrerak, balioak, ikastetxearen dinamika,...) mantendu eta finkatu beharko dira proiektua amaitu ostean ere.

Proiektuak eragindako ondorioak aztertu eta horiei buruzko gogoeta egin ondoren, sartu eta finkatu beharreko aldaketak eta hobekuntzak sustatzeko bereziki erabilgarriak eta eraginkorrak izan diren baliabideak, estrategiak, teknikak eta abar identifikatu beharko dira.

Ekintza zehatzak

- Proiektuan erabilitako baliabideak, estrategiak, teknikak eta abar identifikatzea, betiere Europako dimentsioaren sustapenean eta/edo ikastetxearen garapenean aldaketak eta hobekuntzak eragiteko eraginkorrak izan direnak.
- Ikastetxeko curriculumean, programazioetan eta funtzionamenduan txertatu beharko diren aldaketei buruzko erabaki adostuak hartzea, lortutako hobekuntzak finkatzeko.
- Adostutako aldaketak ikastetxeko curriculum-proiektuan eta ikasgelako programazioan barne hartzea.
- Europaren ezagutzarekin, Europako kide garen ideiarekin eta kultura-aniztasunarekiko errespetuarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera gehitzea (chat-ak, Messenger bidezko erkidegoak, bideo-konferentziak, eskola birtualak, webcam-ak).
- Atzerriko hizkuntzak erabiltzeko komunikazio-egoerei lehentasuna ematea.
- Lan interdiziplinarioa.
- Lehentxeago aditzera emandako alderdiak osatzeko aukera emango duten ikastetxeko antolamendu eta funtzionamendu arloko alderdiak sortzea edo aldatzea:

- Informatika-gelak edo gelako ordenagailuak gehiago erabil daitezzen erraztea.
- Irakasleen zein ikasleen lan interdiziplinariorako espazioa eta denbora aurreikustea.
- Europako eta/edo nazioarteko jardueren koordinatzaile kargua eratzea.
- Irakasleek atzerriko hizkuntzen arloko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko jakintzak hobetzeko denbora aurreikustea.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuan erabilitako baliabide, estrategia eta teknika bereziki eraginkorrak identifikatu dira			
Ikastetxeko curriculumean eta funtzionamenduan txertatu beharreko aldaketak adostu dira			
Adostutako aldaketak curriculum-proiektuan barne hartu dira			
Adostutako aldaketak ikasgelako programazioan barne hartu dira			
Europako ezagutzarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartu dira curriculumean			
Europako kide izatearen ideiarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartu dira curriculumean			
Kultura-aniztasunarekiko errespetuarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartu dira curriculumean			
Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera gehitu da			
Programazioan lehentasuna eman zaio atzerriko hizkuntzen erabilerari			
Lan interdiziplinarioa gehitu da programazioan			
Informatika-gelak edo gelako ordenagailuak gehiago erabil daitezzen sustatu da			
Europako eta/edo nazioarteko jardueren koordinatzaile kargua eratu da			
Irakasleek atzerriko hizkuntzen arloko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko jakintzak hobetzeko denbora aurreikusi da			

3.6.2 Jarraipena

Jarraipenari buruz hitz egitean, askotariko aukerak hartu behar dira aintzat (hasitako harremanei eustea, Europako sare batean barne hartzea, beste Comenius proiektu bati hasiera ematea, nazioarteko beste proiektu batean parte hartzea...). Jarraipena emateko modua amaitutako proiektuaren ebaluazioaren arabera izango da, baita asebetetasun pertsonalaren eta kolektiboaren arabera, etorkizunerako asmo eta iguripenen arabera, aurrekontu-aukeraren arabera, eta ikastetxearen beraren sormenaren arabera ere.

Proiektukide berekin edo beste batzuekin bestelako gai baten inguruko bigarren Comenius proiektu bati ekitea ere aukera paregabea izan daiteke lehen proiektuaren emaitzak hobetzeko, bai proiektukideekiko harremanei dagokienez, bai aurreko proiektuan hainbeste lortu ez ziren alderdiak hobetzeari dagokienez. Lehendik egindako Comenius proiektuan hartutako esperientziari esker, etekin handiagoa

aterako zaio bigarren proiektu batean parte hartzeari, eta sustatutako berrikuntzak eta hobekuntzak finkatzeko lagungarria izango da.

Interesgarria izan daiteke Europako Batzordearen beste ekintza batzuetan ere parte hartzea.

Proiektukide izan diren pertsonetikiko eta/edo ikastetxeetikiko harremanei eustek hainbat mailatako trukeak egiten jarraitzeko aukera emango du.

Ekintza zehatzak

Fase honetan, garrantzitsuena proiektuari jarraipena ematea da. Nork bere zirkunstantziak kontuan izanik, ikastetxe bakoitzak ikusi beharko du jarraipena emateko dauden aukeren arteko zein den harentzat egokiena:

- Hainbat herrialdetako ikasleen eta irakasleen artean hasitako harremanei eustea: posta elektronikoz bidez, eskola-gutunenez bidez, eztabaida-foroen bitartez, edo beste herrialde batzuetako ikasleen egonaldi eta trukeen bidez.
- Hainbat herrialdetako ikastetxeen artean baterako webguneak sortzea eta/edo mantentzea.
- Eskola birtualak ematea Messenger bidez edo informazioaren eta komunikazioaren beste teknologia batzuen bidez –hala nola bideo-konferentzien bidez–.
- Irakasleen eta ikasleen mugikortasunari jarraipena emateko beste finantziazio-sistema batzuk bilatzea. Comenius proiektua amaitu denean, ezarritako nazioarteko harremanetarako komunikazioa erraztuko duten baliabide informatikoak edukitzea.
- Beste Comenius 1 proiektu batzuk egitea: Comenius eskola-proiektuak, Comenius hizkuntza-proiektuak, edo eskola-garapenerako Comenius proiektuak.
- Beste ikastetxe batzuekin beste proiektu batzuk edo nazioarteko harremanak hastea.

Internet bidez hainbat aukera dago beste harreman batzuk egiteko edo beste proiektu batzuei hasiera emateko. Aukera horietako batzuk azalduko ditugu.

Europako Batzordeak ikaskuntzak hobetzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko programa bat du: *“eLearning programme”*. Haren atarian honako ekintzak ematen dira aditzera:

- **e-Twinning**, ikastetxeei elkarrengandik ikasteko, ikuspuntuak partekatzeko eta lagunak egiteko aukera emango dien ekintza da. Nahikoa dira bi ikastetxe e-Twinning ekintza bati hasiera emateko. Ikastetxeen arteko komunikazio-bidea informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarrituko da. Parte hartzeko hainbat maila egon daiteke: irakasleen arteko banakako trukea, irakasle-taldean edo sailen arteko trukea, eta liburuzainen edo zuzendaritzen arteko trukea. Webgune horretan bertan elkartzeko ikastetxeak edo irakasleak bila daitezke, eta chat-etan edo webquest-etan parte har daiteke.
- **“Netdays”**, multimedia berriak (internet, bideo-konferentziak edo ikus-entzunezko tresna berriak) hezkuntzaren eta kulturaren arloan erabil daitezkeen sustatzen duen ekimena da. Ekimen horren unerik garrantzitsuena Netdays astean kokatzen da,

hau da, azaroaren 22tik 27rako astean; aste horretan, on lineako gertaeren –eta beste mota batekoen– erakusketa egiten da, eta horixe da, hain zuzen ere, ekimen horren egintza nagusia.

Beste harreman, ideia eta baliabide batzuk aurkitzeko aukera gehiago dago, hala nola **“European Schoolnet”** deritzan atarian. Bertan, Europako ikastetxeen, irakasleen eta ikasleen ikaskuntza-prozesua zaintzen duten 26 herrialde baino gehiagoko Hezkuntza Ministerioak aurki daitezke. Hezkuntza arloko profesionalek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabil ditzaten sustatzen du. Atari horretan hainbat web-orri aurki ditzakezue:

- **“MyEurope”**, irakasleei laguntzeko sarea. Ikasleei European herritar gaztea izateak zer esan nahi duen erakustea du helburu.
- **“Spring day in Europe”**, web-orri horretan Europako irakatsi eta ikasteko baliabideak eta jarduerak aurkezten dira: Webquest-ak eta Europako Udaberria.
- **“Virtual school”**, hainbat proiektu birtualetan parte hartzeko web-orria.
- **“Enis”**, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituzten ikastetxeen berrikuntzarako Europako sarea.
- **“Etb”**, ikaskuntza-baliabideei buruzko web-orria.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Irakasle proiektukideekin ezarritako harremanei jarraipena eman zaie: gutunak, posta elektronikoa, eta abar			
Ikasle proiektukideekin ezarritako harremanei jarraipena eman zaie: eskola-gutunak, posta elektronikoa, eta abar			
Ikasle proiektukideekin batera, eztabaida-foroetan edo antzekoetan hartu da parte			
Beste proiektukide batzuekin batera, eztabaida-foroetan edo antzekoetan hartu da parte. Zeinetan?			
Proiektukideekin batera web-orriak sortu dira			
Beste ikastetxe batzuekin batera eskola birtualetan hartu dugu parte			
Beste Comenius proiektu bat egin da. Zein?			
Beste proiektu bati ekiteko finantziario-sistema bilatzen ari gara			
eLearning proiektu batean ari gara parte hartzen. Zeinetan?			
Sare batean edo beste proiektu batean ari gara parte hartzen. Zeinetan?			

3.6.3 Eskakizunak/Baldintzak

Beste Comenius 1 proiektu bati hasiera ematea ezinbestekoa izan gabe, ikasleen eta irakasleen arteko harremanei eustea eta harreman horiek zabaltzea bultzatuko duten komunikazio- eta hedapen-sareak erraztu beharko lirateke. Baliabide horien guztien berri eman beharko litzaieke, luze eta zabal, Comenius 1 proiektu bat amaitu duten irakasleei eta ikastetxeei.

Ez da proiektu orok dakarren ahalegina gutxiagotu behar, eta, hori kontuan izanik, agintari eskudunek eta ikastetxeetako zuzendaritzek beharrezko aurreikuspenak egin beharko dituzte proiektu bat garatzeko eta jarraitzeko beharrezko denbora eta finantziarioa lortze aldera. Gainera, nazioarteko harremanak eta trukeak erraztuko dituzten baliabideak edukitzea aurreikusi beharko dute agintari eskudunek eta ikastetxeetako zuzendaritzek: ADSL konexioa, webcam-ak, web elkarreragileak, ordenagailu eta programa eguneratuak, eta abar.

Ekintza zehatzak

- Finantziario-plana (gutxi gorabeherako aurrekontua) honako alderditan oinarrituta lantzea: ikastetxearen aurrekontuan, agintaritzaren eskudunetatik jaso daitekeen laguntzan, familien laguntzan, eta hainbat entitateen ekarpenetan eta dohaintzetan.
- Agintari eskudunek ikastetxearen barruan Europako eta/edo nazioarteko harremanetarako koordinatzaile karguaren premia aitortu dezaten lortzea.
- Agintari eskudunek honakoari buruzko prestakuntza eman dezaten lortzea:
 - Comenius proiektuei buruzkoa.
 - Proiektu horien hainbat alderdi zehatzi buruzkoa.
- Irakasleek atzerriko hizkuntzen arloko jakintzak hobetzeko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko jakintza eta erabilera hobetzeko prestakuntza lortzea agintari eskudunen eskutik.

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxearen aurrekontuan, dohaintzetan eta abar oinarrituko den finantziario-plana landu dugu			
Proiektuan hasitako berrikuntzei jarraipena emateko finantziario-iturriak aztertu dira			
Europako kide izatearen ideiarekin lotzen diren materialak barne hartu dira			
Jarraipena bermatzeko laguntzei buruzko informazioa bildu dugu			
Laguntza horiek eskatu ditugu			
Agintariak ikastetxearen barruan Europako eta/edo nazioarteko harremanetarako koordinatzaile kargua aitortu dezaten eskatu da			
Agintari eskudunei Comenius proiektuei buruzko informazioa eskatu zaie			
Agintari eskudunei Comenius proiektuen arloko prestakuntza eskatu zaie			
Agintariari irakasleen artean atzerriko hizkuntzen jakintza hobetzeko prestakuntza eskatu zaie			
Agintariari irakasleen artean informazioaren eta komunikazioaren ezagutza eta erabilera hobetzeko prestakuntza eskatu zaie			

1. Eranskina

Gidaren egileak.

Koordinazioa:

Alicia Andrzejewska-Wasilenko, Wojewódzki Ośrodek Metodyczny, Polonia

Marta Duñach, Centre de Recursos Pedagògics de Gràcia, Bartzelona, Espainia (proiektuaren koordinatzailea).

Berta Leeb, Vera Binder, Michael Lynch, Pädagogische Akademie der Diözese Linz, Linz, Austria

Ingrid Springer, Institut für schulische Fortbildung und sculpsycologische Beratung, RFZ Boppard, Alemania

Hans E. Van Wessel, Marant Educatieve Diensten, Arnhem, Holanda

Laguntzaileak:

Montserrat Adalid, Bartzelona, Espainia

Joan-Domènec de Andrés, Bartzelona, Espainia

Cati Caparrós, Bartzelona, Espainia

Neus Capella, Bartzelona, Espainia

M. Montserrat Güell, Bartzelona, Espainia

Montserrat Jubete, Bartzelona, Espainia

Rosa Llopart, Bartzelona, Espainia

Rosa López, Bartzelona, Espainia

Maribel Magrans, Bartzelona, Espainia

Juan Mateos, Bartzelona, Espainia

Miquel Moreno, Bartzelona, Espainia

Carme Navarro, Bartzelona, Espainia

Alexandra Nowosielska, Opole, Polonia

Neus Olivé, Bartzelona, Espainia

Maria Piulats, Bartzelona, Espainia

Heidi Schmitt-Ford, Bad-Kreuznach, Alemania

Kinga Starczynowska, Opole, Polonia

Montserrat Tàsies, Bartzelona, Espainia

2. Eranskina

Proiektu baten oinarritzko eredua

Ereduak proiektu baten prozesua eta helburuak deskribatzen ditu, baita hizkuntza edo ikaskuntza arloko programetako funtzioak ere. Proiektuak nola garatuko diren azaltzen du, eta topa daitezkeen zailtasun batzuk argitzen ditu. Lehenik, ikasteko eta motibatzekeo prozesuei buruzko pentsamendu orokorrak azaltzen ditu. Nolanahi ere, ikasteko prozesuan irakasleek eta ikasleek betetzen duten funtzioan oinarritzen da.

Proiektu batean lan egiteak askotariko alde onak ditu, eta horien artean dago ikasleek, ikasgelaren barruan zein kanpoan, ikasteko teknikak eta estrategiak erabil ditzaten sustatzea. Horrez gain, taldean ikasteak –hezkuntza-erkidegoaren barruan zein kanpoan, eta, are gehiago gure mugez harantzago (adibidez, **Comenius 1** proiektu bateko proiektukideekin)– sendotu egiten ditu gaitasun komunikatiboak, sozialak, kulturalak, interkulturalak eta estrategikoak. Ikasleak dira haien ikaskuntzaren erantzule.

Topa daitezkeen zailtasunak: proiektuek lan gehigarria sortzen dute, eta konpromiso osagarria eskatzen dute, ikasleentzat nahiz irakasleentzat.



1. urratsa: Ideia izatea

Ikasleak beren burua oinarri dituzten ekintzak egiten ohituta badaude, erraz motibatuko dira ideia berriak garatzeko, baita proiektuko lanean eta Europa mailako jardueretan murgiltzeko ere.

Ikasteko metodo formalagoetan eta egiturazkoagoetan ohituta dauden ikasleen kasuan, zubi-jarduerak egin beharko dira (proiektu txikiak, hala nola ikasgelako ikaskideei, etxekoei, edo kaleko jendeari elkarrizketak egitea). Zubi-jarduera horiek lan-proiektu zabalago baterako beharrezko teknikak garatzeko diseinatuko dira.



2. urratsa: Gai bat aurkitzea

Ideiari buruzko hasierako eztabaidak iradokizunak eta iguripenak eragingo ditu, eta hainbat gai aintzat hartzea ekarriko du. Proposamenak negoziatu eta eztabaidatu behar dira, betiere har daitezkeen denboraren arabera, ikaskuntza-taldearen tamainaren arabera, proiektuan parte hartuko duten kideen kopuruaren arabera, eta abar. Fase hori oso garrantzitsua da. Zenbat eta proiektukide gehiago murgildu proiektuan eta zenbat eta denbora gehiago izan, orduan eta sakonagoa izango da gaiari buruzko eztabaida.



3. urratsa: Informazioa eta materiala lortzea

Fase horren puntu nagusia informazio hori biltzean datza. Behar besteko trebetasunak izan beharko dira, hala nola:

- Hizkuntzei buruzko ezagutzak izatea –gaia askotariko pertsonengana heltzeko, informazioa eskatzeko, iradokizunak egiteko, apunteak hartzeko, eta abar–, eta atzerriko hizkuntzaren bat jakitea, gaiaren arabera eta proiektukideen arabera.

- Materialak diseinatzea, hala nola galdera-sortak, txostenen ereduak, mapak, grafikoak, eta abar.
- Banaka, bikoteka edo taldeka lan egitea, ikasgela barruan zein kanpoan.
- Lortu nahi den produkturako gertakari garrantzitsuei buruzko datuak biltzea.
- Informazioa eta materiala aurkitzeko teknologia berriak erabiltzea, lan-tresna gisa.

Izan daitezkeen zailtasunak: ikasleak ikasgelaz kanpo daudenean irakasleek ikaskuntza-prozesuan laguntzeko zailtasunak; ahal izanez gero, bideoan eta zintetan, txosten-ereduetan eta abar erregistratu beharko da, ikasleen errendimendua ebaluatzeko lagungarria izan daiteke-eta.



4. urratsa: Informazioarekin eta materialarekin lan egitea

Ikasleek eztabaidatu eta negoziatu beharko dute, eta erreferentziako eta egiaztapenerako informazioa irakurri beharko dute, proiektuko produktua garatu ahal izateko. Hori dela eta, ikasitakoa, bildutakoa, ulertutakoa, aintzat hartutako guztia eta abar sistematikoki egiaztatzeko estrategiak garatu beharko dituzte.



5. urratsa: Emaitzak ebaluatzea

Ikasleek erabaki beharko dute produktuaren azken egitura. Sortzen diren zailtasunen gainean lan egin beharko da, eta irakasleak laguntzaile gisa inplikatu ahal izango dira.



6. urratsa: Produktua amaitzea

Proiektuko produktua amaitzeak produktuari forma egokia ematea esan nahi du.



7. urratsa: Proiektua aurkeztea

Proiektuaren faseak eta emaitza aurkezteko modua produktuaren formatuaren araberakoa da (diagramak, liburuxkak, horma-irudiak, bideoa, DVDa, PowerPointeko aurkezpena,...), baita aurkezpenak egiteko aukeren araberakoa ere.

Nolanahi ere, proiektuaren premia zehatzak asetzeari egokitu beharko zaio eskema hori.

Arazoak eta zailtasunak sor daitezke, baina ikuspegi zuzenetik aztertu beharko dira. Aldian behingo zailtasunak agertuko dira, inolako zalantzarik gabe, baina proiektuaren onura nabarmenek guztiz konpentsatuko dituzte zailtasun horiek. Ikasleek eta irakasleek etekina ateratzen diote proiektu batean lan egiteari. Ikasleen motibazioak gora egiten du proiektuaren ekarpenekin. Kasurik gehienetan, motibazioak gora egiten du proiektuak aurrera egin ahala, baina baita proiektua amaitu ondoren ere. Talde-

lanaren gaineko konfiantza areagotzea eta ikasleen arteko eta ikasle eta irakasleen arteko harreman pertsonalak sakontzea da beste alde onetako bat.

Proiektu batean beharrezkoak diren funtzioak eta gaitasunak

Ikasleen funtzioak

- Taldean lan egitea
- Antolatzea
- Idaztea
- Irakastea
- Ekoiztea
- Diseinatzea
- Elkarrizketatzea
- Kudeatzea
- ...

Irakasleen funtzioak

- Ikuskatzea
- Hornitzea
- Aholkuak ematea
- Irakastea
-

Ikasleen gaitasunak

- Ikasteko prozesu baten helburuak definitzeko gaitasuna
- Arazoak ebazteko estrategiak, irakasleen laguntzaz bestelakoak
- Proiektu baten prozesuan sortzen diren zailtasunei aurre egiteko gizarte-gaitasunak
- Jakintza teknikoak
- ...

Irakasleen gaitasunak

- Ikasteko teknikak eta estrategiak eskaintzea
- Talde-dinamikako prestakuntza
- Ikasleek egiten dutenaren jarraipena egiteko gaitasuna
- Irakasleen jakintzak sustatzeko gaitasuna
- ...

3. Eranskina

Praktika onen adibideak

Adibidea	1
1. fasea	Comenius proiektu bati hasiera eman aurretik
Alderdia edo gaia	Gaia aukeratzea eta proiektuaren oinarriak ezartzea
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Bartzelonako ikastetxe publiko bat da, lehentasuneko arretakoa, eta etorkin ugari eta maila sozio-ekonomiko txikiko biztanleria duen auzo batean kokatzen dena.

Proiektuaren koordinatzaile zen ikastetxe honek haren irakaskuntza-jardunaren inguruko "prestakuntza-ebaluazioaren" gaia lantzea proposatu zuen, eta horretarako proiektukide egokiak bilatu zituen. Klaustroak aholkulari batekin jorratu zuen gaia, eta, gogoeta-lana amaitu ostean, beste herrialde batzuetako irakasleekin partekatu nahi izan zuen.

Proiektukide egokiak aurkitzearen aldera, hainbat hezkuntza-erakundetara jo zuten. Gaiarekiko interesa izan zezaketen eta arlo horretako jakintza partekatu, zabaldu eta sakondu nahi zuten beste ikastetxe batzuekin harremanetan jar zitzaten nahi zuten.

Prestatze-bisita funtsezkoa da proiektuaren garapenerako oinarri sendoak ezartzeko, eta, hori dela eta, arreta berezia jarri zitzaion prestatze-bisitari: lanean hasteko helburuak adostu ziren; landu beharreko kontzeptuen esanahia finkatu ahal izateko lengoaiak komuna ezartzeko irakurketak finkatu ziren; proiektukide guztien klaustroei proiektuaren edukian parte hartzeko aukera emango zien lan-metodologia ezarri zen.

Adibidea	2
1. fasea	Comenius proiektu bati hasiera eman aurretik
Alderdia edo gaia	Proiektuaren helburuak lortzea
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza
Herrialdea	Holanda

Holandako ikastetxe honen proiektuaren helburuak jakintzetan eta produktu materialetan ez ezik, produktu ez-materialetan ere oinarritu ziren: trebetasunetan, estrategietan eta jarreretan. Helburu guztiak zehatzak eta lortzeko modukoak ziren.

Jakintzaren arloan, ikastetxeak honakoa lortu nahi zuen:

Ikasleen artean:

- Laneko liburua ingelesez sortzea.
- Posta elektronikoak jaso eta bidaltzea.
- Beste kultura batzuk bizitzeko eta partekatzeko aukera izatea.

Irakasleen artean:

- Irakaslerik egokienak hautatzea, ordutegiaren eta prestasunaren arabera.
- Europako gaiak eta gai orokorrak garatzeko euskarri ona izatea eskola-curriculumaren barruan.

Trebetasunen eta estrategiaren alorrean, honakoa lortu nahi zuen ikastetxeak:

Parte-hartzaile guztien artean:

- Harreman onak izatea gainerakoekin, desberdintasunak errespetatuz; bizimodu osasuntsua eta ziurra sustatzea; konfiantza eta erantzukizuna garatzea; eta norberaren gaitasunik onenak baliatzea.

Jarreraren arloan honakoa lortu nahi zuen ikastetxeak:

Parte-hartzaile guztien artean:

- Europako herritar onak sor daitezzen bultzatzea.

Adibidea	3
2. fasea	Proiektuari hasiera ematea
Alderdia edo gaia	Proiektua ikastetxean bertan planifikatzea eta kudeatzea
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Bartzelonako ikastetxe publiko bat da, klaustroan 27 kide eta 450 ikasle dituena. Ikastetxeak proiektuaren zereginak urteko plangintzan txertatu nahi zituen.

- Ikastetxean garatzen ari diren zereginak txertatzea:

Ikastetxeak *Adimen-kudeaketari* buruzko mintegia antolatzen eta koordinatzen zuen. Comenius proiektua mintegi horren barruko beste jarduera bat bailitzan planteatu zen. Ildo horretan, ez zen beste lan baten moduan planteatu, guztiek bere egiten zuten proiektu baten barruko jarduera gisa baizik.

- Bilera-plana:

Bilerak ikastetxearen urteko antolamenduan eta plangintzan barne hartu ziren. Ezohiko bilera gutxi programatu zen.

- Lan-plangintza:

Landutako planarekin jarraituz, eta bisitaldiak eta jarraipen eta ebaluazioko jarduerak abiapuntu izanik, urtearen barruan zehazteko aukera emateko moduan planifikatu zuen proiektua zuzendaritza-taldeak.

- Ebaluazioa:

Comenius proiektuko lanen urteko emaitzak ikastetxeko urteko memorian barne hartzea adostu zen aurretik.

Adibidea	4
2. fasea	Proiektuari hasiera ematea
Alderdia edo gaia	Helburu nagusiak zehaztea eta adostea
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Bartzelonako ikastetxe bat da, etorkin ugari eta maila sozio-ekonomiko txikiko biztanleria duen ingurune batean kokatzen dena. Proiektukideen taldeak definitu eta partekatu zituen proiektuaren helburuak, betiere ikasle, irakasle eta ikastetxeari dagokionez.

Ikasleentzako helburuak

- Jakintzak
 - Hizkuntza-trebetasunak hobetzea.
 - Teknologia berriak integratzea.
 - Ordenagailuaren erabileran oinarritutako ikaskuntza hobetzea.
 - Proiektukideen herrialdeak gehiago ezagutzea. Proiektukideetako bakoitzaren errealitatea ezagutzea eta aztertzea.
- Prozedurak
 - Lan autonomia eta kooperatiboa sustatzea.
 - Proiektu komunak lantzea.
 - Informazioa trukitzea.
- Jarrerak
 - Beste nazioekiko, hizkuntzekiko eta ohiturekiko errespetua sustatzea. Proiektukideen gutxiespena eragiten duten estereotipoen orokortzea eta sorrera saihestea.

Irakasleentzako helburuak:

- Prozedurak
 - Espezialitate eta interes bereko profesionalen arteko harremana sustatzea.
 - Lan egiteko moduak egokitzea eta ikasleen artean talde-lana sustatzea.
 - Komunikazioa hobetzea, proiektuaren barruko zereginak egiteko.
 - Zereginak gaiaren eta denboraren arabera eraginkortasunez antolatzea.
 - Zereginak aurkezteko alderdi orokorretan bat egitea.

- Jarrerak
 - Norberaren gaineko konfiantza garatzea, irakasle parte-hartzaileei dagokienez.
 - Autoestimua hobetzea.

Ikastetxearen esparruko helburu orokorrak:

- Europako herrialdeen arteko harremanak estutzea.
- Beste proiektukide batzuekin harremanetan jartzea, atzerriko hizkuntzen arloko programei eta ikaskuntzari dagokionez.
- Europa osoko ikastetxeekin lan komunerako programa garatzea.

Parte-hartzaile guztientzako helburu orokorrak:

- Atzerriko hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeko premia partekatzea.
- Herrialdeen arteko harremanetarako eta konparaziorako puntuak ezartzea.
- Lanerako gaiak adostea eta egin beharreko zereginak partekatzea.

Adibidea	5
3. fasea	Proiektuaren prozesua eta garapena
Alderdia edo gaia	Lana identifikatzea eta banatzea
Ikastetxe mota	Lanbide Heziketa
Herrialdea	Polonia

Ikastetxeak eta proiektukideek proiektuaren lanerako hizkuntza zehaztu zuten. Hainbat arlotako irakasleek, irakasle ez diren langileek eta familiekin hartu zuten parte proiektuaren lanean.

Proiektuan egin beharreko lana prestatzeko, eta lan horretarako beharrezko alderdiez hitz egiteko, 90 ikaslek bisitatu zuten proiektukideetako baten herrialdea. Greziako arkitekturari eta bizimoduari buruzko marrazkiak eta zirriborroak egin zituzten; antzerkiari, filosofiari, heroiei, kirolei eta beste gai batzuei buruz hitz egin zuten; eta abar. Bisita horretan, proiektuko lana zehatz-mehatz nola banatu adostu zuten (herrialde bakoitzerako banaketa egin zen).

Oporen egin zen tailerrean, aldiz, nork berak egindakoa aurkeztu zuen herrialde bakoitzak: Albertvilleko neguko Joko Olinpikoei buruzko aurkezpena, Esoporen ipuinen eszenaratzea, proiektukideetako bakoitzeko mitologiaren oinarritutako dantza folklorikoak, zeramika-lanak, eta abar.

Adibidea	6
3. fasea	Proiektuaren prozesua eta garapena
Alderdia edo gaia	Hizkuntzari buruzko lana
Ikastetxe mota	Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Austria

Ikastetxeak proiektuaren lan-hizkuntza gisa ingelesa erabiltzea erabaki zuen. Hainbat arlotako irakasleek eta familiek hartu zuten parte proiektuan.

Proiektuari ekin aurretik, eta elkar hobeto ezagutzeko, ikasleek elkarri idatzi zizkioten gutunak. Gutun horietan nor bere burua deskribatzen zuen. Lehen topaketaren ondoren, areagotu egin ziren ikasleen arteko gutun bidezko harreman horiek. Nor bere familien eta hiriaren argazkiak atera zituen eta koadroak pintatu zituzten. Proiektukide guztiei igorri zieten materiala.

Proiektuaren gaia ikasleen kultura zen, eta, hori dela eta, Austriako abesti tipikoak eta jantzi tradizionalekin egindako dantzak erakusten zituen bideoa egin zuten. Austriako topaketan, bisitariarentzat dantzatu zituzten dantza horiek. Proiektukideek, bestalde, beren bideoak eraman zituzten, eta abestiei eta dantzei buruz hitz egin zen.

Ikasleek oso harreman onak izan zituzten proiektukideekin, eta kulturen arteko desberdintasunak gehiago errespetatzen ikasi zuten.

Adibidea	7
3. fasea	Proiektuaren prozesua eta garapena
Alderdia edo gaia	Ikastetxearen parte-hartzea
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Proiektu osoan zegoen bermatuta ikastetxe guztiaren parte-hartzea, baina inplikazioa oso bestelakoa izan zen hezkuntza mailaren arabera, ikastetxearen arduraren arabera eta proiektuaren unearen arabera.

- Irakasleak.

Irakasleen inplikazioan eta partaidetzan alde handiak izan ziren.

- Zuzendaritza-taldeak (ikastetxeko zuzendaria, Lehen Hezkuntzako koordinatzailea eta dantzako koordinatzailea) sustatu zuen proiektua, eta prestatze-bisitan izan zen.
- Lehen Hezkuntzako lehen zikloko tutoreek (batez ere 6. mailakoek) eraman zuten proiektuaren zama, baita ikasleek ikastetxe proiektukideekin izan beharreko komunikazioaren zama ere.
- Ikastetxeko gainerako tutoreek proiektuaren une jakin batzuetan hartu zuten parte –hiruhilekoen amaieran–, eta ikastetxe proiektukideetako bateko ikasleen bisitaldiko festaren antolakuntzan lagundu zuten.

- Dantzako irakasleek antolatu zituzten ikasleek proiektuan egindako sormen artistikoak.

- Ikasleak.

Ikastetxeko ikasle guztiek hartu zuten parte, baina bi mailatako parte-hartzea zegoen. 5. eta 6. mailako ikasleak guztiz jakitun ziren Europako beste herrialde batzuetako neska-mutilekin batera egiten ari zirela lana –posta bidez edo posta elektronikoko bidez bazen ere–. Gainera, 6. mailako ikasle guztiek bidaia egin zuten proiektuaren amaieran. Beste maila batzuetako ikasleek, aitzitik, une jakin batzuetan soilik hartu zuten parte; festetan eta hiruhileko bakoitzaren amaieran, zorionak eta materialak trukatu zituzten, baita proiektukideetako bateko neska-mutilen bisitaldietako jarduera artistikoetan ere.

- Familiak.

6. mailako ikasleen familiek ere lagundu zuten:

- Ikastetxea bisitatu zuten beste herrialde horretako ikasleei ostaturia eman zieten etxean.
- Kataluniako opari tipikoak erosi edo egin zituzten ikasle bisitariarentzat, baita beren seme-alabek bidaia egiterakoan eramateko ere.
- Seme-alaben proiektu amaierako bidaiarako finantziario-iturriak eta ekarpen ekonomikorako bitartekoak bilatu zituzten.

- Irakasle ez diren langileak.

Irakasle ez diren ikastetxeko langileek ere lagundu zuten proiektuan, ikastetxearen beste jarduera bat izango bailitzan.

Adibidea	8
3. fasea	Proiektuaren prozesua eta garapena
Alderdia edo gaia	Mugikortasuna
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

5. adibideko kasuan bezalaxe, ikastetxeak mugikortasuna sustatu zuen.

- Irakasleak

- Zuzendaritza-taldeak (zuzendariak, Lehen Hezkuntzako koordinatzaileak eta dantzako koordinatzaileak) hartu zuen parte prestatze-bisitan.
- Beste herrialdeetako gainerako bileretan zuzendaritza-taldeko pertsona batek, edo bik, eta goi mailako zikloko tutore batek hartu zuten parte.

- Ikasleak

- Proiektuaren amaieran. 6. mailako ikasle guztiak joan ziren herrialde koordinatzaileera.
- Familien kargura izan zen ikasleen mugikortasunaren finantziazioa. Ikasleek ikasturtero egiten duten bidaiatzat jo zuen ikastetxeak bidaia hori.
- Bisitaldi horretan, herrialde guztiek egindako dantza arloko sormen artistikoak dantzatu zituzten ikasleek. Proiektuko herrialdeetako irakasle guztien aurrean egin zuten dantza.

Adibidea	9
4. fasea	Emaitzak eta produktuak
Alderdia edo gaia	Produktuen gaia eta formatua zehaztea
Ikastetxe mota	Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Polonia

Ikastetxe proiektukideek zehaztasun handiz adostu zuten produktuen mota eta forma, baita produktu horiek egiteaz arduratuko zen taldea ere. Arreta handiz landu zen materialak aurkezteko egintzara gonbidatu nahi ziren pertsonen zein pertsonalitate adierazgarrien zerrenda.

Proiektuko emaitza materialak eta ez-materialak:

- Ikasleek egindako materialak.
 - Bildumak (paisaiak, oharra, txanponak).
 - CDak (horma-irudiak, abestiak).
 - Proiektuan bisitatutako herrialdeetako argazkiak.
 - Ikasle proiektukideen bisitaldiak dokumentatzen zituzten erakusketak.
 - Bideoak.
 - Sareak.
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako produktuak.
 - Ikasleek, familien laguntzarekin, zuhaitz bat landu zuten eta Comenius izena jarri zioten (bideoan grabatu zuten ekintza).
- Emaitza ez-materialak.

Irakasleentzat:

- Jakintzak: irakasleek ikastetxe proiektukideak ezagutzeko aukera izan zuten, baita ikastetxe horien klaustroak ere. Horrek hezkuntza-sistemak, ikastetxeko lana, irakasgaiak, baldintzak, tradizioak eta abar aldatzeko eta horiei buruzko eztabaida egiteko aukera eman zuen. Talde eleanizetan nola lan egin ikasi zuten.

- Prozedurak: informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera hobetzea, atzerriko hizkuntzak ikastea, ikastetxean bertan talde-lana hobetzea, metodo aktiboagoak erabiltzea.
 - Jarrerak: proiektuko zeregina ikastetxeko bizitzaren parte bihurtu zen, askorentzat ikasgai bat izan zen: poloniar izatea europar izatea da.
- Ikastetxerako emaitzak:
 - Curriculumean beste atzerriko hizkuntza bat sartzea, alemanera.
 - Ikastetxeak Comenius proiektuetan parte hartzera animatu zituen beste ikastetxe batzuk.
 - Telebistan, irratan eta prentsan agertutako informazioei esker, ikastetxea ezaguna eta ospetsua egin zen tokiko erkidegoan.

Adibidea	10
3. fasea	Proiektuaren prozesua eta garapena
Alderdia edo gaia	Proiektuak irakatsi eta ikasteko teknikan eta estrategietan izandako eragina
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza (10-19 urte)
Herrialdea	Alemania

Proiektua ingurumen-baliabideei buruzkoa da: uraren eta hondakinen azterketa ekologikoa, ondorio ekonomikoak eta eguneroko bizitzaren gaineko eragina (lana eta aisialdia).

Hautatutako ikuspegi metodologikoa funtsezkoa izan zen.

Irakasleen jarduerak.

- Zuzendaritzak bileretan hartu zuen parte, baita azterlanerako bisitetan, finantza-baliabideen bilaketan, eta beste erakunde eta entitateekiko harremanetan ere.
- Parte hartu zuten irakasleek sei bilera egin zituzten ikasleekin, ikasturtearen barruan. Bilera horietan, jarraitu beharreko prozesuari buruzko akordioak garatzea eta berrosatzea izan zuten aztergai. Gainera, beharrezkotzat jo zen bakoitzean, bilera informalak egin zituzten. Helburu nagusia prestakuntzako eta plangintzako fasean ikasleei laguntzea eta kontsultatzea izan zen, eta xehetasunak behar bezain bestetan eztabaidatu ziren.
- Irakasleek ideiak garatzera, arazoak ebaztera eta unerik zailenetan irtenbideak aurkitzera animatu zituzten ikasleak.
- Irakasleek, ikasleekin batera, arreta jarri zieten bisitaldietan ikastetxe proiektukideetako ikasleei.

Ikasleen jarduerak.

- Haien proiektuaren lan-plangintza diseinatu eta abian jarri zuten.

- Proiektukideekin eta laguntzaileekin eztabaidatu zituzten faseak.
- Egindako lanaren emaitzak ebaluatu zituzten prozesuaren barruan.
- Uraren eta hondakinen laginak aztertu eta ondorioak atera zituzten.
- Ikerketen emaitzak aurkeztu zituzten.

Emaitza ez-materialak eta ikastetxeko irakaskuntzan, ikaskuntzan eta garapenean izandako eragina

- Irakasteko beste metodo batzuk zabaldu zituzten, baita ikasteko beste teknika eta estrategia batzuk ere.
- Ahaleginaren eta arrakastaren arteko korrelazioa identifikatu zuten.
- Ingurumenaren kontserbazioaren aldeko norbere jokabideaz jabetu ziren.
- Hainbat herrialdetako ikasleekin eta irakasleekin finkatutako harremanei jarraipena eman zitzaien.

Adibidea	11
4. fasea	Emaitzak eta produktuak
Alderdia edo gaia	Produktuen aurkezpena
Ikastetxe mota	Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Polonia

Ondoren zerrendatzen diren produktuak izan ziren proiektu honen emaitzak, aurkezpenean erabili zirenak.

Emaitza materialak:

- Poloniako, Italiako, Alemaniako eta Frantziako bizimoduaren alderdi askoren deskribapenak biltzen zituzten aldizkari elebidunak (ohiturak, eskulangintza-piezak, gizarte-arazoak, ikastetxeak eta haien kokapena Europako integrazio-prozesuan, eskualdearen historia, eta abar).
- “Europako haurrak” nazioarteko ekitaldia (bideoan grabatua).
- “Europa Klasea” lehiaketa (sukaldaritzak, jantzi folkloriko nazionalak, *Gure bizimodua eskolan* bideoa).
- Ikastetxeko ikasleek eta irakasleek idatzi, konposatu eta abestutako abestien CDa.
- Europako herrialdeei buruzko horma-irudia.
- Irakasleek eta ikasleek prestatutako Europako ikasgaiak.
- Ikastetxe proiektukideetako ikasleek egindako eta bidalitako Gabonetako eta Aste Santuko postalak.
- Eskuz egindako Gabonetako eta Aste Santuko artisautza-apaingarriak.
- Europako Eskolaren Klubaren hasiera.

Irakasleentzako emaitza ez-materialak:

- Trebetasunak: irakasleek ingelesa ikasi eta erabili behar izan zuten, atzerriko lankideekin elkarlanean nola jardun ikasi zuten, eta ikastetxe barruko elkarlanak hobera egin zuten.
- Jarrera: tolerantzia sustatu zen, ikastetxeko irakasleen eta irakasle ez diren langileen arteko harremana sendotu zen.

Ikasleentzako emaitza ez-materialak:

- Jakintzak: beste herrialde batzuetako ikastetxeak ezagutu zituzten; haien tradizioak, kultura, aisialdiaz eta oporrez baliatzeko moduak ezagutu zituzten; eta Europar Batasunari buruzko jakintzak areagotu zituzten.
- Trebetasunak: ikasleek ingeles maila hobetu zuten, ordenagailua hobeto erabiltzen ikasi zuten, bideo-filma bat egiten ikasi zuten, eta erakusketak nola prestatu eta aurkeztu behar diren ikasi zuten.

Adibidea	12
4. fasea	Emaitzak eta produktuak
Alderdia edo gaia	Proiektuaren emaitzak
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza (10-16 urte)
Herrialdea	Alemania

Proiektuaren berriazko edukia eta prozesua: beste herrialde batzuen bizimoduari buruzko ezagutzak (esate baterako, ohitura, leku, klima, landaredi, hezkuntza eta abarri buruzkoak).

Garrantzi handikoa izan zen lan-bolumena eta ikasleen gaitasunak orekatzea. Hori dela eta, hiru urtetarako aurreikusitako lana hainbat aldi laburretan zatitu zen, eta hainbat ikasle-taldean artean banatu ziren edukiak. Gainerako proiektukideek aldi berean egin zuten lana, baina beste gai batzuk jorratu zituzten.

Produktuak.

Ikastetxe proiektukideetako taldeek landutako proiektuen ondoriozko bilduma laburrak eta zehatzak izan ziren produktuak.

- Hainbat dekoraziotako kamisetak (ikastetxeen ikurretatik ikasleen idoloetara eta publizitate-esaldietara).
- Jai tradizionalen buruzko horma-irudiak eta liburuxkak.
- Europako lorategia (hainbat herrialdeetako zuhaitzez eta landarez osatutakoa).
- Eguraldi-mapak.
- Arropa tradizionalak janzten dituzten panpinak.
- Hezkuntza-aukerei buruzko liburuxkak.
- Kirolei buruzko CDak –ikastetxe proiektukideak dira parte-hartzaileak–.

- Ikastetxeko bizimoduari buruzko bideoak; gatazkak ebazteko moduari buruzkoak, eta abar.
- Proiektukideen herrialdeetako plater tipikoen errezetak biltzen dituzten sukaldaritza-liburuak.

Eraitza ez-materialak.

- Beste kulturekiko errespetua.
- Lortutako arrakasten ondoriozko gogobetetasuna.
- Autoestimua hobekuntza.
- Proiektukideen hizkuntzetako berriazko hiztegia.

Ebaluazioa eta gogoeta

Hainbat adinetako 150 neska-mutil inguru oso motibatuta inplikatu zen zenbait proiektutan. Irakasleek, familiek eta hezkuntza-erkidegoko beste estamentu batzuek laguntza eman zieten.

Irakasleek gehiago inplikatu nahi zituzten ikasleak, eta proiektuko herrialdeetako batean urtero ikasleen topaketa egin zedin ziurtatu nahi izan zuten.

Irakasleek zein ikasleek nahiago zuketzen hain asmo handirik ez zuen proiektu lorterrazagoa.

Adibidea	13
5. fasea	Eragina, ondorioak eta hedapena
Alderdia edo gaia	Etorkizunari begira, proiektuko alderdiak aztertzea eta hautatzea, eta hobekuntzak ezartzea
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Bartzelonako ikastetxe publiko bat da, *elkarlanari* eta haren aplikazioei buruzko gogoeta egin nahi zuena.

Proiektuan arreta handiz aztertu eta baloratu zuten prozesuaren zein unetan zeuden, eta, horretarako, zeregin hori erraztuko zuten tresnak behar izan zituzten. Proiektuaren esanahiaz jabetzeko fase horretan, ezinbestekoa izan zen tresnak lantzea eta aplikatzea.

Sortutako aldaketaz jabetzeko, honako tresnak landu ziren:

- Azterketa eta ebaluazioko "Elkarlana: irakasleengan sortutako aldaketak" tresna landu zen.
- Azterketa eta ebaluazioko "Elkarlana: ikasleengan sortutako aldaketak" tresna landu zen.
- Azterketa eta ebaluazioko "Elkarlana: ikastetxean sortutako aldaketak" tresna landu zen.

- Proiektuaren eragina baloratzeko proiektuko ikastetxe guztietan aplikatu ziren aditzera emandako tresna horiek.
- Proiektuaren eraginaren beste ikuspegi bat lortzeko, kanpo-balorazioa egin zuen ikastetxeko hezkuntza-ikuskatzaileak.
- Hobekuntzak txertatzeko, berriz, elkarlana mailakatu zen, eta ikasleen, irakasleen eta ikastetxearen lan-metodologian pixkanaka gaineratu zen elkarlana.

Elkarlana ikastetxearen filosofiaren parte bihurtu da, eta, hala den aldetik, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan txertatu da, proiektuari jarraipena ematen zaiola ziurtatuz.

Adibidea	14
5. fasea	Eragina, ondorioak eta hedapena
Alderdia edo gaia	Emaitzak osatzea eta hedatzea
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza
Herrialdea	Holanda

Ikastetxe honek ekintza zehatzez eta jarraipen-jardueraz osatutako emaitzak osatzeko plangintza zuen. Ekintzetan irakasleak zein ikasleak eta familiak zeuden inplikaturak.

Proiektuaren emaitzak hainbat mailatan osatu ziren.

- Zuzendaritza-taldeak topaketen bitartez bideratu zituen jarraipen-jarduerak, beste bi proiektukideekin batera beste Comenius proiektu bati hasiera emateko.
- Irakasleek gutun eta posta elektronikoko bidez mantendu zituzten harremanak proiektuari jarraipena emateko. Hala, beste Comenius proiektu bati hasiera emateko aukera zabaldu zuten. Irakasleek, nolana ere, bisitak errazteko beste aukera batzuk bilatu zituzten.
- Ikasleek, bestalde, urtean lautan idatzi zieten proiektukideei eta jarraipena eman zioten proiektuari. Chat-a mantendu zuten, posta elektronikokoaren bidea zabalik zuten, eta baterako web-orri bat landu zuten.
- Familiak ere proiektuari jarraipena eman nahi izan zioten, oso pozik baitzeuden ikastetxeak ikasleei nazioarteko harreman horiek eskaintzeko aukerarekin. Hori dela eta, ilusio handia zuten gisa horretako beste proiektu bat bultzatzeko. Horrek gainbalioa gaineratu zion ikastetxeari.

Adibidea	15
5. fasea	Eragina, ondorioak eta hedapena
Alderdia edo gaia	Produktuen hedapena
Ikastetxe mota	Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Polonia

Ikastetxeak ekintza ugari egin zuen, proiektuaren barruan eta proiektuaren ondoren, emaitzak hedatzeko.

- Europa arloko eskolak sartu ziren hezkuntza maila guztietan.
- Haur Hezkuntzarekin elkarlanean jardun zen, bai Europa arloko hezkuntzaren esparruan, bai proiektuarekin lotzen diren beste jarduera batzuen esparruan.
- Hedabideekin eta udalekin elkarlanean jardutea ikastetxearen eguneroko bizimoduaren parte bihurtu zen.
- Irakasleak ingelesa ikasten hasi ziren.
- Proiektuko materialak (ingelesaz eta polonieraz idatziak) irakaskuntza-material gisa erabili ziren –adibidez, ingelesezko eskolak itzulpen-lanetarako erabili ziren–.
- Ikastetxeko proiektuaren koordinatzaileek irakasleen trebakuntzarako tailerretan hartu zuten parte.
- Ikastetxeak beste proiektu bati ekiteko interesa azaldu zuen.
- Ikastetxeak proiektu bati ekiteko interesa zuten beste ikastetxe batzuetako irakasleei lagundu zien.
- Ikasleek, irakasleek, irakasle ez diren langileek eta familiek jardunak prestatu zituzten.
- Ikastetxeak COMENIUS jaialdi batean hartu zuen parte.

Adibidea	16
6. fasea	Jarraipena
Alderdia edo gaia	Jarraipen-jarduerak
Ikastetxe mota	Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Polonia

Ikastetxeak jarraipen-ekintza ugari egin zuen eskualdean.

- Irakasleek eta ikasleek Europako Klubeko Socrates-Comenius proiektuak aurkeztu zituzten Opoloko Unibertsitatean, Eslovakiako Unibertsitatearekin elkarlanean.
- Oinarrizko ingeleseko ikastaroa antolatu zen ingelesez ez zekiten ikastetxeko langileentzat (ikastetxe proiektukideen telefono-dei bati edo fax-dei bati nola erantzun jakiteko, adibidez).
- Ingeleseko bi irakasle gaztek hartu zuten parte Ingalaterran egindako ingeleseko irakasleentzako Socrates-Lingua ikastaroetan.
- Ikastetxeak, Socrates programaren barruan, Ingalaterrako bertako bat gonbidatu zuen, eta ingeleseko irakasle izan zen ikastetxean.
- Ikastetxeko langileek atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzaren kalitatea sustatzeko proiektua idatzi zuten. Proiektu horretan, Ingalaterrako bertako batekin elkarlanean jardutea sartzen zen; izatez, pertsona horrek ingelesa irakatsi eta haren herrialdeko kultura sustatu behar zuen.
- Ikastetxeak, ondoren, Socrates-Comenius 1 hizkuntza-proiektu batean hartu zuen parte.

- Ikastetxeko ikasleek Galesi buruzko lehiaketa batean eta Comenius proiektuei buruzko beste lehiaketa batean hartu zuten parte, eta Italiara bidaiatu zuten.
- Ikastetxeko nazioarteko antzerki jaialdiaren antolakuntzan hartu zuten parte ikasleek.
- Ikasleak ikastetxe proiektukideetako beste ikasle batzuekin izan ziren harremanetan.

Adibidea	17
6. fasea	Jarraipena
Alderdia edo gaia	Aldaketak eragin dituzten baliabideak identifikatzea
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Ikastetxe horrek kohesio handiko irakasle-taldea du, proiektuko hiru urteetan landutako alderdietako asko identifikatu, txertatu eta finkatu dituena:

- Ikasleak taldekatzeari buruzko gogoeta metodologikoak. Oso baliagarriak izan dira irakurketaren eta/edo idazketaren ikaskuntzan, irakurketaren bilakaeran, proiektuen araberrako lanean, eta diktaketa bidezko lanean.
- Behaketarako, testuen zuzenketarako eta memorizaziorako jarraibideak.
- Ikasleen aniztasuna onartzeko lagungarriak izan dira.
- Ebaluazio-sistema eta ebaluazio-prozesua aldarazi eta malguarazi dute. Orain ikasle bakoitzak erabiltzen dituen estrategiak hartzen dira aintzat.
- Arazoak ebazteko metodologia aldarazi dute. Ikasle bakoitzaren norbanako prozesua errespetatzen da.
- Adimen-kudeaketari buruzko dokumentazioaren irakurketa aztertzea, hausnartzea eta adostea.
- Lan grafikoa aztertzea, hausnartzea eta adostea. Ikastetxearen programazioan txertatu den eta oso ondo baloratu den elementua da.
- Ikasgeletako lanean egindako bideoak. Material horrek egiten ari den lanaren autokritika, gogoeta eta ebaluazioa erraztu du.

Gaineratu diren aldaketen identifikazioa:

- Autoidazketaren, hizkuntzaren –oro har– eta arazoak ebaztearen arloko irakatsi eta ikasteko metodologia berri da.
- Aniztasunaren balioa areagotzeko eta, horrenbestez, aniztasunaren arreta hobetzeko lagungarria izan da.
- Adimen-kudeaketako antzerkiaren lan sistematikoa txertatu da programazioan.
- Programazio orokorrean lan grafikoa txertatu da.
- Ikasleak ebaluatzeko prozesua hobetzeko aldaketak egin dira. Prozesuak malgotu eta hobetu dira.

Jarraipen-ekintzen identifikazioa

- Zuzendaritzak bideratutako jarraipen-ekintzak. Estrasburgon egindako zuzendarientzako ikastaro batean bertaratu zen.
- Irakasleek bideratutako jarraipen-ekintzak. Prestakuntzako hainbat jardueretan hartu zuten parte:
 - Europako gaietako hainbat ikastaro laburretan hartu zuten parte.
 - Esperientziak trukatzeko topaketak egin zituzten.
 - Ingeles hizkuntzako prestakuntzako jardueretan hartu zuten parte.
- Ikasleek bideratutako jarraipen-ekintzak:
 - “Papin bidaiaria” Italiako ikastetxearekin truke egin zuten.
 - Goi zikloko ikasleek Orator proiektuko hizkuntza-udalekuetan izena eman zuten.
- Ikastetxeko beste Comenius proiektu baten antolakuntzan hartuko dute parte, koordinatzaile gisa. Proiektu horretan ikasleek hartuko dute parte, baita aurreko Comenius proiektuko ikastetxe proiektukide bat ere –ikastetxea garatzeko proiektua zen, eta irakasleen inplikazioa, batik bat, eskatu zuen–.

Adibidea	18
Fasea	Fase guztiak Praktika on integrala
Alderdia edo gaia	Eskola-erkidego osoak partekatu zuen proiektuaren gaia
Ikastetxe mota	Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza
Herrialdea	Espainia

Bartzelonako ikastetxe publiko bat da, klaustroan 200 kide eta 1.500 ikasle dituen.

Ikastetxeko hezkuntza-proiektuak osasuna eta ohitura osasuntsuak sustatzea du bereizgarri, eta arlo horretako nazioarteko proiektua egitea erabaki zuen.

- Ikastetxea Osasuna Sustatzen duten Ikastetxeen Europako Sarearen parte da. Hori dela eta, osasuna sustatzeko konpromisoa hartu du ikastetxeak. Konpromiso horretan hezkuntza-erkidegoko sektore guztiak daude inplikatur.
- Osasuna Sustatzen duten Ikastetxeen Europako Sareak Pragan egindako elikadurari buruzko jardunaldi batzuk abiapuntu izanik, eta ohitura osasuntsuak sustatuko dituzten jarduerak proposatzeko eta gauzatzeko konpromisoaren barruan, arlo horretako Europako proiektu bat egitea erabaki zen.
- Ikastetxe koordinatzaile gisa, elikaduraren eta osasunaren arloko ohituen gaiarekiko interesa zuten proiektukideak bilatu zituen.

Antolakuntza

Irakasleak

- Ikastetxeko Elikadura eta Osasun Saileko burua tartean zegoen talde sustatzaile baten eskutik sortu zen.
- Proiektua onartu ostean, talde koordinatzailea eta dinamizatzailea eratu zen. Talde hori zuzendaritza-taldeko kide batek, hainbat sailetako ordezkariak eta zuzenean inplikaturako ikasle-taldeetako tutoreak osatu zuten.
- Talde koordinatzaile guztiaren aldizkako bilerak ezarri ziren ohiko lan-orduez kanpo (astean bi ordukoak).
- Proiektua garatzeko prozesuaren informazioa irakasle guztien artean partekatzen zela bermatu zuen talde koordinatzaileak.

Ikasleak

- Proiektua gauzatzeko eta materiala lantzeko prozesuan zein ikasle-taldek hartuko zuen zuzenean parte erabaki zen. Guztira 14 eta 16 urte arteko 100 ikasle izan ziren.
- Proiektuarekin zuzenean lotzen ziren ikasleak antolatu ziren, materialak ikastetxearen gainerakoei aurkezteko.

Familiak

- Proiektuaren gaia ikastetxearen ideien parte zen, eta, horrenbestez, familiek ezagutzen eta partekatzen zuten. Dimentsio berriaren berri eman zen gurasoen elkartean, baita ikastetxean ezarritako familia-ikastetxe harremanetako bileretan ere.
- Zuzenean inplikaturako irakasleen familiek informazioa bilatzen lagundu zuten: errezetak jaso, elikagaiekin lotzen diren abesti tradizionalak bildu...

Adibidea	19
Fasea	Fase guztiak Praktika on integrala
Alderdia edo gaia	Ingurunearekiko eta curriculumarekiko hurbilketa eta konexioa
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza
Herrialdea	Holanda

Ikastetxearen ingurunea kontuan izanik finkatu zituen ikastetxeak gaiak nahiz ekintzak. Proiektukideak irizpide horri jarraituta hautatu ziren: denak portua zuten hirietakoak ziren.

Metodoari dagokionez, portu bakoitzeko uraren kalitatea ikertzea eta ikastetxe proiektukideen ikerketetako emaitzak alderatzea –eta horretarako posta elektronikoa erabiltzea– izan zen proiektuaren helburua.

Produktuari dagokionez, helburu nagusia lau proiektukideek egindako lanaren emaitzak jasoko zituen web-orrian zetzan.

Honakoa izan zen lanaren edukia:

Jakintzaren esparruan:

Ikasleek hirietako portuei buruzko ikerketa-lana egin zuten, eta, hortaz, lan interdisciplinarioa izan zen (geografia, historia, ekonomia, biologia, gizarte-zientziak, kimika eta fisika).

Trebetasunen eta estrategien esparruan:

Ikasleek proiektuekin, dokumentuekin, galdera-sortekin eta taulekin lotzen diren hainbat trebetasun garatu zituzten, hala nola bilaketa, komunikazioa, azterketa eta laburpena. Era berean, trebetasun teknikoak garatu zituzten, eta webgunea egiteko beharrezko teknologia berriak landu zituzten.

Ikastetxeko curriculumarekiko erlazioa:

Ez zen inolako arazorik izan proiektua abiarazteko. Proiektua, trebetasunak eta gaia ikastetxeko curriculumarekin lotzen ziren. Irakasleak gaia zein proiektua lan zitzakeen eskoletan, proiektua curriculumaren parte baitzen. Ikasleek, beraz, proiektu interdisciplinarioa egiteko aukera izan zuten.

Adibidea	20
Fasea	Praktika on integrala
Alderdia edo gaia	Kultura desberdinek kontsumoaren aurreko jarrera desberdinak eragiten dituzte
Ikastetxe mota	Bigarren Hezkuntza (lanbide-eskola)
Herrialdea	Alemania

Kontsumitzailearen pentsamoldean oso bestelako jarrerak eta kontsumismoarekiko bestelako hurbilketak sortzen dituzten desberdintasun kulturalak ulertzea zen proiektuaren helburu nagusia.

Proiektuaren edukia

Ikasleek filmazioak egin zituzten ikastetxeetatik hurbileko inguruetan; tradizioetan oinarritutako eszenategi tipikoak filmatu zituzten (Alemania, Txekiar Errepublika, Frantzia, Polonia). Filmazio horiei esker, errazago ulertu ziren herrialde horietako baldintza sozialak, kulturalak eta ekonomikoak. Era berean, zer zerbitzu eta lanbide dagoen zirkunstantzia zehatzen guztiz mende ikasi zuten ikasleek. Ikusi ahal izan zuten, lana arrakastaz egingo bazuten, kultura anitzeko testuingurua ezagutu behar zuten, eta herrialde, kultura eta jendearen arteko desberdintasunak ezagutu behar zituzten –desberdintasun horiek batzuetan agerikoak ziren, baina beste batzuetan ez horrenbeste–.

Proiektukideak

Ikastetxeetako ikasle eta irakasleez gain, negozio-gizonek/emakumeek eta enpresaburuak ere bultzatu zuten proiektua. Informazioa eta esperientzia eskaini zuten, fabriketarako eta instalazioetarako bisitaldiak erraztu zituzten, diru-laguntzak eman zituzten, eta abar.

Emaitzak

Ikasleek praktikan jarri zuten teoria; enpresen simulazioak egin zituzten, artikulua sortu zituzten, zerbitzuak egin zituzten, elkarlanean jardun zuten proiektukideekin, eta esperientziak trukatu zituzten. Egiaztatu zuten ezinbestekoa zela produktuak hautatutako eskualdeetako jendearen ezaugarrietara egokitzea.

Emaiza ez-materialak

- Beste kulturekiko errespetua nagusitu behar da, betiere ezagutzan oinarrituta.
- Ikasleei ikaskuntzan parte hartzeko aukera emango dieten irakaskuntza-metodoetan oinarritu beharko dira ikastetxeek.
- Hizkuntza bat errazago ikasten da proiektu batean parte hartzen eskolan baino.
- Teknologia berriak erabili beharraz jabetu behar dute.
- Ikaskuntzarekiko eta ondo egindako gauzekiko jarrera positiboagoak azaldu behar dituzte.

4. Eranskina

Interneteko helbideak

Zerrenda honetan, nazioarteko proiektuetan parte hartu nahi duten ikastetxeetarako web-orri interesgarriak proposatzen dira.

Socrates Agentzia Nazionala:

<http://www.mec.es/programaseuropeos/jsp/plantillaAnchosoc.jsp?id=3440>

Comenius proiektuak: Comenius 1, eskola-proiektuak; Comenius 1.2., Comenius hizkuntza-proiektuak; Comenius 1.3., eskola-garapenerako Comenius proiektuak:

http://europa.eu.int/comm/education/programmes/socrates/comenius/index_en.html

Comenius proiektuetan parte hartzeko eskuliburuak:

http://europa.eu.int/comm/education/programmes/socrates/comenius/tools_en.html

Europar Batasuneko herrialdeetako bulego nazionalen helbideak:

http://europa.eu.int/comm/education/programmes/socrates/comenius/natagenc_en.html

Partbase: Comenius proiektu batean parte har dezaketen ikastetxeak bilatzeko datu-basea: <http://partbase.programkontoret.se>

Comenius Space: Comenius programari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen duen ataria. Atari horretan esperientziak truka daitezke, proiektukideak topa daitezke eta elkarlanean egindako lanak eman daitezke argitara: <http://comenius.eun.org>

Global Gateway: nazioarteko proiektuetan parte hartzeko nazioarteko ataria; bertan, ikastetxe proiektukideak aurki daitezke: <http://www.globalgateway.org.uk/>

eLearning programa: komunikazioaren eta informazioaren teknologiak hezkuntza-sisteman barne hartzeko Europako Batzordearen programa. Honakoa da ataria: <http://www.elearningeuropa.info/>

e-Twinning: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz elkarlanean jarduten duten eskola-senidetzeak: <http://www.etwinning.net/ww/en/pub/etwinning/index.htm>.

Netda@ys: multimedia-tresnen erabilera sustatzen duen Europako Batzordearen ekimena: <http://www.netdayseurope.org/index.php>

European schoolnet : Europako hezkuntzari buruzko ataria, bertan hainbat proiektu, sare, harreman eta baliabide topa daitezke: <http://www.eun.org/portal/index-es.cfm>.

Virtual school: hainbat proiektu birtualetan parte hartzeko web-orria: http://vs.eun.org/ww/en/pub/virtual_school/index.htm

Spring day in Europe: irakatsi eta ikasteko jarduerak eta baliabideak aurkezten dituen web-orria: http://www.eun.org/eun.org2/eun/en/index_spring.cfm

Enis: multimedia-tresnak erabiltzen dituzten ikastetxeen berrikuntzarako Europako sarea: http://enis.eun.org/eun.org2/eun/en/enis2/entry_page.cfm?id_area=18

Etb: ikaskuntza-baliabideei buruzko web-orria: <http://etb.eun.org/etb/index.html>.

5. Eranskina

Kontrol-zerrendak

1. FASEA. 1. alderdia

Proiektuaren motibazioa eta helburuak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuaren helburuei buruz hitz egin dugu			
Gaiarekiko interesa dugu			
Ikastetxeko nazioarteko dimentsioa hobetu nahi dugu			
Hizkuntzen irakaskuntza eta erabilera hobetu nahi dugu ikastetxean			
Proiektu batean lan egitearen esperientziaz baliatu nahi dugu			
Proiektuaren helburuak definitu ditugu			

Ikastetxeko praktikarekiko erlazioa

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Curriculumarekiko erlazioari buruz hitz egin dugu			
Ikastetxeko metodologiarekiko erlazioari buruz hitz egin dugu			
Ikastetxeko curriculuma hobetu nahi dugu			
Ikastetxeko metodologia hobetu nahi dugu			
Hizkuntzaren irakaskuntza hobetu nahi dugu ikastetxean			
Irakaskuntza praktikatu nahi dugu, baita atzerriko hizkuntzen erabilera ere			

1. FASEA. 3. alderdia

Barruko parte-hartzaileak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxeak lor dezakeen onura definitu dugu			
Ikastetxe guztiarentzat edo zati batentzat soilik baliagarria den erabaki dugu			
Nork hartuko duen parte definitu dugu			
Hautatzeko irizpideak definitu ditugu			
Ikastetxeko parte-hartzaileei informatu diegu			
Proiektukideei informatu diegu			

Proiektukideak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektukideen kopurua eztabaidatu eta adostu dugu			
Badakigu zein diren haien ahulguneak eta indarguneak			
Badakigu zein den proiektukideen motibazioa			
Proiektukideak hautatzeko irizpideak definitu ditugu			
Proiektukideen taldean esperientzia duen baten bat dago			
Proiektukide guztiek betetzen dituzte baldintzak			
Proiektukideak hautatzeko kanpoko laguntza eskatu dugu			

Aurrekontua

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Aurrekontua kudeatzeko politikaz mintzatu gara eta politika hori finkatu dugu			
Proiektuak irauten dituen urteetarako aurrekontua ezarri dugu			
Hainbat iturritatik dirua lortzen saiatu gara			
Proiektuko jarduerak eta aurrekontua bat etor zitezten ahalegindu gara			
Gastuetarako lehentasunak definitu ditugu			

Ikastetxeko prestatze-ekintzak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleek egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Klaustroak egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Zuzendaritza-taldeak egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Irakasle ez diren langileek egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			
Familiek egin beharreko lanari buruz hitz egin dugu eta lan hori definitu dugu			

Ikastetxe barruko koordinazioa

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxeko koordinazio-zereginez hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			
Bi aukerari buruz hitz egin dugu: koordinazio-talde bat edo koordinatzaile bat			
Koordinatzailea edo koordinazio-taldea izendatzea erabaki dugu			
Koordinazio-taldearen edo koordinatzailearen zereginez hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			
Eskola-kontseiluaren zereginez hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			

Denboraren kudeaketa

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleek eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Irakasleek eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Zuzendaritza-taldeak eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Irakasle ez diren langileek eman beharreko denborari buruz hitz egin dugu eta denbora definitu dugu			
Ikastetxeari dagokion lan-plangintzari buruz hitz egin dugu eta lan-plangintza definitu dugu			
Proiektukideei dagokien lan-plangintzari buruz hitz egin dugu eta lan-plangintza definitu dugu			
Lan-plangintza proiektukideekin partekatu dugu			

1. FASEA. 9. alderdia

Emaitzei, ezarpenari, hedapenari eta jarraipenari buruzko ideiak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Sor daitezkeen produktuei eta emaitza materialei eta ez-materialei buruz hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu			
Izan daitezkeen emaitzei buruz hitz egin dugu eta horiek definitu ditugu: jakintzak, trebetasunak eta jarrerak.			
Produktuak zein talderi zuzentzen zaizkion aztertu dugu eta definitu ditugu: irakasleak, ikasleak, irakasle ez diren langileak, zuzendaritza-taldea			
Produktuak eta emaitzak zein esparrutakoak diren aztertu dugu eta definitu ditugu: curriculum, metodologia, hizkuntzen praktika, nazioarteko dimentsioa			
Ezarpena egiteko moduei buruz eztabaidatu dugu eta modu horiek definitu ditugu			
Hedapena egiteko moduei buruz eztabaidatu dugu eta modu horiek definitu ditugu			
Emaitzak osatzeari buruz hitz egin dugu eta osatzea definitu dugu			
Hedapenari buruz hitz egin dugu eta hedapena definitu dugu			
Aurretiazko ezarpen-plan bati buruz hitz egin dugu eta plan hori definitu dugu			
Hedapen-planari buruz hitz egin dugu eta plan hori definitu dugu			
Aurretiazko planak proiektukideekin partekatu ditugu			

1. FASEA. 10. alderdia

Prestatze-bisita edo hasierako harremanetarako mintegia

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Prestatze-bilera antolatu dugu			
Topaketa horretan eztabaidatzeko gaien zerrenda idatzi dugu			
Topaketa egin dugu			
Proiektuaren helburuak eta edukia adostu dugu			
Lan-plangintza adostu dugu			
Aurrekontu-gaiez hitz egin dugu			
Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna adostu dugu			
Lehen jardunak eta proiektua hasi ondorengo lehen topaketa planifikatu dugu			
Eskaera-orri ofiziala eskatzea erabaki dugu			

2. FASEA. 1. alderdia**Lan-plangintza****Kontrol-zerrenda**

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxean, lan-plangintzari buruz hitz egin dugu			
Hasierako bileran parte hartu dugu			
Proiektukideekin batera helburu errealistak definitu ditugu			
Zeregin zehatzak banatu ditugu			
Herrialdeen arteko desberdintasunak kontuan hartuta ezarri dugu programa			
Bileretarako eta ikasleen eta irakasleen mugikortasunerako data zehatzak definitu ditugu			

2. FASEA. 2. alderdia

Iguripenak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Produktuak definitu ditugu			
Produktuak aurkezteko modua, unea eta lekua zehaztu ditugu			
Lortu nahi diren emaitza ez-materialei buruz hitz egin dugu			

2. FASEA. 3. alderdia

Ebaluazio-plana

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ebaluazioa egiteko uneak definitu ditugu			
Ebaluazioa egiteko tresnak definitu eta erabaki ditugu			
Barne-ebaluazioa egiteko pertsona edo talde arduraduna hautatu dugu			
Ebaluazioaren emaitzak nola erabili zehaztu dugu			

Informazio-plana

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuko lan-hizkuntza adostu dugu			
Proiektukideen arteko komunikazio-plana adostu dugu			
Internet eta posta elektronikoa dugu eskura			
Ikasleek komunikazioaren teknologia berriak erabil ditzakete ikastetxean			
Ikastetxeen artean komunikatzeko modua definitu dugu			
Emaitzak hedatzeko modua hartu dugu aintzat			

3. FASEA. 1. alderdia**Parte-hartzea**

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Irakasleen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Irakasle ez diren langileen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Zuzendaritza-taldearen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Familien inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Ikasleen inplikazioa eta partaidetza sustatu dugu			
Kanpoko laguntza lortzen saiatu gara			

3. FASEA. 2. alderdia

Lan-plangintza/temporalizazioa

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Lanerako hizkuntza hautatu dugu			
Lan-plangintza eta temporalizazioa ezarri dugu parte-hartzaile guztientzat			
Temporalizazioan aldaketak egin ditugu			
Parte hartzen duten estamentuei informatzeko egutegia planifikatu dugu			
Zuzendaritza-taldeari informatzeko egutegia planifikatu dugu			

3. FASEA. 3. alderdia

Topaketak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuaren hainbat fasetarako topaketak antolatu ditugu			
Proiektuaren amaierako topaketa antolatu dugu			
Familiekin egin beharreko bilerak antolatu ditugu			
Topaketa guztien ebaluazioa egin dugu			

3. FASEA. 4. alderdia

Mugikortasuna

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleen mugikortasuna aurreikusi dugu			
Irakasleen mugikortasuna aurreikusi dugu			
Zuzendaritza-taldeko kideen mugikortasuna aurreikusi dugu			
Produktuen eta materialen trukea planifikatu dugu			

3. FASEA. 5. alderdia**Gogoeta**

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Bide zuzenean al gaude?			
Gauzaren bat aldatu behar al da?			
Beste ildo batetik eraman behar al da proiektua?			
Ikastetxean proiektuaren garapenari buruz informatu dugu			
Motibazioari eusteko neurri egokiak hartu ditugu			
Proiektukide guztiei sormenerako, malgutasunerako eta ekimenerako espazioak utzi dizkiegu			
Kanpoko diru-iturrien jarraipena egin dugu			
Lan-taldeen sorrera piztu dugu			

4. FASEA. 1. alderdia

Produktuak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Produktuen mota eta formatua zehaztu dugu			
Produktuak egiteko aukerei buruz hitz egin dugu, betiere baliabideak eta ekipamendu teknikoa kontuan izanik			
Beharrezko bitartekoak eta baliabideak bildu ditugu			
Produktuez arduratuko diren taldeak edo taldea hautatu ditugu			
Produktuak egiteko prozesuaren jarraipen sistematikoa egin dugu			
Produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa nola erabiliko ditugun definitu dugu			
Proiektukideen produktuak irakatsi eta ikasteko material gisa nola erabiliko ditugun definitu dugu			

4. FASEA. 2. alderdia

Emitza ez-materialak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Jakintzeekin lotzen diren emitza ez-materialari buruz hitz egin dugu			
Jarrerekin lotzen diren emitza ez-materialari buruz hitz egin dugu			
Trebetasunekin lotzen diren emitza ez-materialari buruz hitz egin dugu			
Ikastetxearekin –entitate gisa– lotzen diren emitza ez-materialari buruz hitz egin dugu			
Ingurunearekin lotzen diren emitza ez-materialari buruz hitz egin dugu			
Emitza ez-materialen lorpen maila nola ebaluatu eta neurtuko dugun pentsatu dugu			

4. FASEA. 3. alderdia

Produktuen aurkezpena

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Produktuen aurkezpena programatu dugu			
Aurkezpena prestatzeaz arduratuko den taldea hautatu dugu			
Aurkezpenera gonbidatutako pertsonen zerrenda egin dugu			
Aurkezpenera gonbidatutako hedabideetako ordezkarien zerrenda prestatu dugu			
Ikastetxe proiektukideek landutako produktuen aurkezpena programatu dugu			

Proiektuak ikastetxean izan duen eragina aztertzea eta identifikatzea

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Lan-plangintzan gogoetarako denbora sartu da			
Proiektuak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan izan dituen eraginak aztertu dira			
Irakasleen inplikazioa handiagoa izan da			
Talde-lana hobetu da			
Hezkuntza-plangintza hobetu da			
Ikastetxearen barruko komunikazioa hobetu da (irakasleak, ikasleak, familiak)			
Irakasleentzako beste trebakuntza-premia batzuk hauteman dira			
Proiektuak curriculumean izan dituen eraginak hauteman dira			
Hizkuntzen jakintza hobetzeko beste eduki batzuk txertatu dira curriculumean			
Beste herrialde batzuei buruzko estereotipoak gutxitu dira			
Lan interdisciplinarioa areagotu da			
Edukiak, materiala, eta abar ebaluatzeko beste tresna batzuk txertatu dira			
Ikasleen jakintzak eta trebetasunak hobetu dira			
Ikasleen gizarte-trebetasunak hobetu dira			
Ikasleen komunikazio- eta adierazpen-gaitasunak hobetu dira			
Ikasleek haien buruaren eta gaitasunen gainean duten ikuskera hobetu da			
Irakasleen hizkuntza-gaitasunak hobetu dira (beste hizkuntza batzuen jakintza)			
Irakasleek ikasleengan dituzten iguripenak hobetu dira			
Ikasleei autonomia handiagoa eman zaie ikaskuntza-prozesuan			
Irakasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologien jakintza hobetu dute			
Irakasleek autoestimua hobetu dute			
Ikastetxearen prestigioa hobetu da			

5. FASEA. 2. alderdia

Proiektuak eragindako hobekuntzak hautatzea eta txertatzea

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuak sortutako edukiak eta produktuak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Ikasleek eskuratutako gaitasunak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Beste gaitasun batzuk eskuratzeko alderdi metodologikoak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Irakasleentzako material bihurtzeko produktuak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Ikasleentzako material bihurtzeko produktuak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Europako dimentsioari dagozkion jakintzak, balioak eta jarrerak hautatu eta curriculumean txertatu dira			
Aurreko alderdiak gauzatzeko beharrezko erabakiak hartu dira			

5. FASEA. 3. alderdia

Hedapena

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikasleei zuzendutako informazio-jarduerak antolatu eta egin dira			
Irakasleei zuzendutako informazio-jarduerak antolatu eta egin dira			
Familiei zuzendutako informazio-jarduerak antolatu eta egin dira			
Proiektuaren emaitzak jakinarazteko jarduerak antolatu dira			
Ikastetxeko argitalpenetan proiektuaren emaitzak eman dira argitara			
Proiektuko emaitzak beste ikastetxe batzuetan jakinarazi dira			
Proiektuko emaitzak tokiko erkidegoari jakinarazi zaizkio			
Webgune elkarreragilea egin da			
Proiektuko emaitzak azaltzeko erakusketa antolatu da			
Proiektuko emaitzak mintegietan edo biltzarretan jakinarazi dira			
Comenius sare baten partaide gara			

6. FASEA. 1. alderdia

Finkapena

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Proiektuan erabilitako baliabide, estrategia eta teknika bereziki eraginkorrak identifikatu dira			
Ikastetxeko curriculumean eta funtzionamenduan txertatu beharreko aldaketak adostu dira			
Adostutako aldaketak curriculum-proiektuan barne hartu dira			
Adostutako aldaketak ikasgelako programazioan barne hartu dira			
Europako ezagutzarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartu dira curriculumean			
Europako kide izatearen ideiarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartu dira curriculumean			
Kultura-aniztasunarekiko errespetuarekin lotzen diren beste eduki batzuk barne hartu dira curriculumean			
Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera gehitu da			
Programazioan lehentasuna eman zaio atzerriko hizkuntzen erabilerari			
Lan interdiziplinarioa gehitu da programazioan			
Informatika-gelak edo gelako ordenagailuak gehiago erabil daitezzen sustatu da			
Europako eta/edo nazioarteko jardueren koordinatzaile kargua eratu da			
Irakasleek atzerriko hizkuntzen arloko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko jakintzak hobetzeko denbora aurreikusi da			

6. FASEA. 2. alderdia

Jarraipena

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Irakasle proiektukideekin ezarritako harremanei jarraipena eman zaie: gutunak, posta elektronikoa, eta abar			
Ikasle proiektukideekin ezarritako harremanei jarraipena eman zaie: eskola-gutunak, posta elektronikoa, eta abar			
Ikasle proiektukideekin batera, eztabaida-foroetan edo antzekoetan hartu da parte			
Beste proiektukide batzuekin batera, eztabaida-foroetan edo antzekoetan hartu da parte. Zeinetan?			
Proiektukideekin batera web-orriak sortu dira			
Beste ikastetxe batzuekin batera eskola birtualetan hartu dugu parte			
Beste Comenius proiektu bat egin da. Zein?			
Beste proiektu bati ekiteko finantziario-sistema bilatzen ari gara			
eLearning proiektu batean ari gara parte hartzen. Zeinetan?			
Sare batean edo beste proiektu batean ari gara parte hartzen. Zeinetan?			

Eskakizunak/Baldintzak

Kontrol-zerrenda

	Bai	Ez	Oharrak
Ikastetxearen aurrekontuan, dohaintzetan eta abar oinarrituko den finantziazio-plana landu dugu			
Proiektuan hasitako berrikuntzei jarraipena emateko finantziazio-iturriak aztertu dira			
Europako kide izatearen ideiarekin lotzen diren materialak barne hartu dira			
Jarraipena bermatzeko laguntzei buruzko informazioa bildu dugu			
Laguntza horiek eskatu ditugu			
Agintariak ikastetxearen barruan Europako eta/edo nazioarteko harremanetarako koordinatzaile kargua aitortzen eskatu da			
Agintari eskudunei Comenius proiektuei buruzko informazioa eskatu zaie			
Agintari eskudunei Comenius proiektuen arloko prestakuntza eskatu zaie			
Agintariari irakasleen artean atzerriko hizkuntzen jakintza hobetzeko prestakuntza eskatu zaie			
Agintariari irakasleen artean informazioaren eta komunikazioaren ezagutza eta erabilera hobetzeko prestakuntza eskatu zaie			